



GOIERRITARRA



**Azoka berezian
kalitatea nagusi**

*Betiko konfidantza
eta profesionaltasuna*

nick's
ENGLISH CENTRE


Kurtso hasiera

Irailak 16

Izen ematea

Irailaren 1etik aurrera

Arratsaldeko 6etatik 8etara



GONARTE
ENMARCACION

Tel. eta Faxe 943 161871
Urdaneta, 52 ORDIZIA

Gure MARKOZTATZE TAILERRETAN
egin errealitate, imaginatu
dezakezun guztia

Aholkatu eta zure beharrei
egokitutako soluzioak eskainiko
dizkizugu

Carpinteria
González
Enmarcación

☎ 943 88 23 88
Nekolalde, 22 BEASAIN

Harlandu S. Coop batez ere profesionalen osatutako giza taldean oinarritzen den enpresa da. Bere azken urteetako esperientzia handia azken teknikekin lotu du diseinuan eta marmol, granito eta harrien akaberetan.

Horrela jaio da Harlandu, bere abangoardiako teknologiari inizatiba eta bere profesionalen taxua batu dizkion kooperatiba.



Marmolak
Granitoak
Harriak

Zubierreka industrialdea, 52 • LAZKAO
Tel.: 943 882 465 • Tel. eta faxe: 943 887 249



MARMOL, GRANITO ETA HARRI LANAK • SUKALDE ETA BAINUKO GAINAK • FATXADA ETA ZORUEN ESTALIAK • LAPIDAK

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastortza,
Eduardo Albizu, Iñaki Unanue, Sa-
roi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Ga-
bino Murua, Agurtzane Bikuña,
Ekaitz Goikoetxea eta Angela
San Juan.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.700 ale.


ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**300.000 pezetako
bidaiaren zozketa
GOIERRITARRAren eskutik**

Hirugarren urtez ja-
rraian, GOIERRITA-
RRA aldizkariak
300.000 pezetako bidaia
zozketatuko du aurten
ere, sos batzuk ateratze-
ko asmotan. Izan ere,
guztion beharra daukagu
eta GOIERRITARRA al-
dizkariak, hamabostero-
hamabostero kalean iza-
teko.

Abenduaren 21ean
Notario aurrean aterako
da zenbaki irabazlea.
Zortea duenak, 2000. ur-
teko irailaren 30a baino
egin beharko du bidaia.
Garaia, lekua eta zenbat
lagunekin joan aukeran
izango ditu irabazleak.

Iaz 24 laguneko laguntal-
de bati egokitu zitzaion
saria eta guztiak elkarre-
kin egin zuten bidaia-
txoa.

200 pezetan daude sal-
gai errifak. Bakoitzak bi
zenbaki ditu. Herri guz-
tietan salgai jarriko dira.
Hurrengo alean zehaztu-
ko dizuegu herri bakoit-
zean zein lekutan egon-
go diren salgai. Ordizia-
ko azokan ere izango da
erosteko aukera. Inork
errifak saldu nahiko bali-
tu, dei dezala 943-
889612 telefonora.


Errifak erosteko bo-
rondatea izango duzuela-
koan, aurrez eskerrik as-

BOTA BERTSOA



Alaitz Sarasola

**Ordiziako euskal
jaiak**



*Doinua: hamarreko
handiko edozein.*

Lauzpabost oilo saski haundian
eta sokatik astoa
baserritarrek jarraitzen dute
urteroko arrastoa
plaza erdian jendea lepo,
kamiñoan ataskoa
ta frontoiean egingo dute
gazta onaren gastoa
batorrelako urtean behingo
peri dotore askoa.

Dantzari eta abeslariak
omen datoz Ordizira
pelotariak ere badute
beren pelota partida
Goñi're igual azalduko da
iluntzaldean sikira...
Ta bertso saio elegantea
goierritarron neurritan
etxekoneko Martin takilan
ia etxoitten jarri da!

**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Kaixo lagunak:

Gu Lazkaoko eta Beasaingo neska-mutilak gara. Aurtengo uda ez da berbera euskaltzegira etortzen hasi garenetik. Egunero 9:00etan altxatu behar dugu 10:00etan Beasaingo AEK-an egoteko.

Gu 3 urteekin hasi ginen euskeraz hitz egiten baina denbora pasatu ahala klasez kanpo euskera erabiltzeari utzi genion eta horregatik euskaltzegira etortzen gara behintzat egunero bi ordu praktikatzeko. Uztailaren 1etik 23ra eta oporretatik

etorri ondoren irailaren 1etik 9raino berriro ere etorri behar dugu.

Hemen jokuak, elkarrizketak, irteerak, pelikulak ikusi eta horrelako ekintzak egiten ditugu. Bai ikasle eta irakasleekiko harremanak oso onak direnez, sarritan farre egiten dugu. Hartu dugun konpromezua etortzen garen bi orduetan euskeraz hitz egitea da.

Besterik gabe, agur!

AEK-ko ikasleak

Oharra:

Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da kome-ni makinaz idatzitako 30 lerro baino luzeago idaztea eskutitz hauetan.

Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira.

Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.

Ez da agertuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.

Laburtu beharra izanez gero GOIERRITARRAK bere esku izango du horretarako eskubidea.



Pottoka

KAFETEGIA

ORDIZIA

- Plintxo hotz eta beroak
- Ogiltartekoak

Jai zoriontsuak denoi!

Legazpi kalea. 3

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogiltarteko, plintxoak

Nagusia, 27



943 88 20 07
BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar

✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

YARZABAL, S.L.

Zurgingidegi mekanikoa


AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA
Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



gizarte-ekintza
obra social

TXANDAKA

Bertatik bertara

Aztiri gainetik,

Zatoz, zatoz zeu ere bakardadearen lagunartera eta izan zaitez nire zorionaren partaide.

Bezperaren biharamunak eta biharamunaren bezperak bat egiten duten hodeiertzean, bihotz berritzen dihardut izadiaren isiltasun urrekara sorgotuz. Aztiriko zuhaitz zehar adabegitsuetan kukuturik, libro dira ene hitzak haizea den bizitza bezala. Etsipenezko olerti galduak, eztiz ihintzaturiko bertso hauskarak, gauerdiko maitasun aitortza lausotuak, oro da bihurturik amets nire baitako sormenaren harilketan. Betierekotasunak hartaraturik, egunerokoa etorkizuneko oroitzat bizi duten ibiltarien aurrean, etorkizuneko oroitzak egunerokotzen ditut txirringa karrankariaren ibilian. Izan ere, atseginagoa zait Marbella, Salou eta Benidormeko in-txaur errea baino Aztiriko ametsondo kulunkaria, urrutimina baino min urruna...

Bizitza biziz, denbora galtzeko astirik gabe, amaigabeko oporretan darrait.

Zure zain

Ekaitz Goikoetxea 'Mekola'



Berriz ere eskolan hasteko gogorik ba al duzu?



Ibai Mendia
11 urte, ikaslea
ordiziarra

Ez. Ez zait gustatzen eskolara joatea. Oporretan ederki ibiltzen naiz lagunekin jolasean.

Mikel Prieto
10 urte, ikaslea
ordiziarra

Ez. Ikasi beharra dago eta nahiago dut ez joatea. Eskolan atsedean garaian bakarrik pasatzen dugu ondo.



Eneko Azpeitia
7 urte, ikaslea
segurarra

Oporretan jarraitu nahi dut, oraindik ez naiz aspertu. Jolasteko denbora gehiago izaten dugu oporretan eta eskolan lan egin beharra dago.

Arantxa
Lentzeria
Jai Zoriontsuak!
J. M. Barandiaran, 3
☎ 943 88 76 15 **ORDIZIA**

ALDASORO
Taberna - Jatetxea
Festa onak pasa!
Urdaneta, 27 ☎ 943 88 00 23 - 943 88 11 40 **ORDIZIA**

INPRIMATEGIA
URDANETA
KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ
Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Fäxa: 943 16 14 07 **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak denoi!
ESKAILU TABERNA
Arteaga, 1
ORDIZIA

ZINEA

BEASAIN:

'Wild, Wild West'. Ostirala 3: 22:15; larunbata 4: 19:30 - 22:15; igandea 5: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 6: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Matrix'. Ostirala 3: 22:15; larunbata 4: 19:30 - 22:15; igandea 5: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 6: 19:30.

MUSIKA

ATAUN:

Irailak 3, Geroh eta Lif, San Gregorion, 22:00etan.

Irailak 3, Etzakit, San Gregorion, 24:00etan.

Irailak 4, Alaitz eta Maider, 24:00etan. San Gregorion.

Irailak 5, Joxemi Martis eta Aloña, 20:00etan. San Gregorion.

ORDIZIA:

Irailak 4, Tirri Tarra fanfarearen Priscilla ikuskizuna, Plaza Nagusian, 22:30an.

Irailak 10, Mikel Urdangarin, Plaza Nagusian, 22:15ean.

BERTSOLARIAK

BEASAIN:

Irailak 5, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña, Beasainmendin, 12:30ean.

MUTILOA:

Irailak 12, Xabier Zeberio eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariak, Lierni auzoan, 13:30ean eta 18:00etan.

ORDIZIA:

Irailak 11, Maddalen Lujanbio, Nahikari Gabilondo, Unai Iturriaga, Jon Maia, Igor Elortza eta Joxe Munduate, 22:30ean, Herri Antzokian.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Irailan zehar, LP bilduma ezberdinak erakusgai Zinema tabernan.

ORDIZIA:

Irailan, Jesus Jauregi eta Euskal Pilota Jokoa erakusketak Barrenan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 5, Beasainmendira.

Irailak 12, Ganbora.

ABUZZTUAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- Txirringaren aienean
Amaia eta Esther (Txalaparta)
- 2- Berandu da gelditzeko
Unai Iturriaga (Susa)
- 3- Putzu
Txillardegi (Elkar)
- 4- Izendegia
Xarles Bidegain (Elkar)
- 5- Iparragirre
Keinu (Keinu)

DISKOAK:

- 1- Izurri Berria
'Izurri Berria' (Izurri)
- 2- Fermin Muguruza 'Brigadistak Sound System' (Esan Ozenki)
- 3- Mikel Urdangarin
'Badira hiru aste' (Gaztelupeko hotsak)
- 4- Alaitz eta Maider
'Inshala' (Elkar)
- 5- Hemendik At
'Orain' (Gor)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Auto EASO

ibabe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✗ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✗ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

Etxebizitza salgai Itsasondón. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainuarekin. 689659850.

Neska bat behar da Gastetzen pisua osatzeko. 943180173.

Leioan pisua osatzeko neska bat behar da. 943889414.

Opakuako mendian, Araban, 100 metro²ko etxola errentan ematen da, 6.000 metro²ko terrenoarekin. 945-301027 (bulego ordue-tan deitu).

Pertsona bat behar da Iruñeako Itxurrama auzoan pisua osatzeko. Unibertsita-teetatik gertu. 943-160205 / 943-800423

3 lagun behar dira Leioan pisua osatzeko. 943-883665 - 943524820.

Pertsona euskaldun bat behar da Bilbon pisua osatzeko. 943-187619. Ainhua.

Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943-886834.

Etxebizitza salgai Beasainen. Gela bat negoziara-ko prestatua. 943 3180.

Datorren ikasturtean Leioan pertsona bat behar da pisua osatzeko. Leire (943883470) - Ainara (943800180).

Lana:

Neska euskaldun bat be-har da tabernan lan egiteko. Beasaingo 168 posta kutxa-ra bidali datuak.

Neska bat behar dugu etxeko lanak egin eta hau-rrak zaintzeko. Euskalduna. Lazkao. 943-454573. Itziar.

Salerosketak:

'Comanche' kanpin gur-dia salgai. Prezio interesga-rria. 943 885923.

Kawasaki GPZ 400 mo-torra salgai. Egoera onean. 943731872 - 943731282.

Peugeot ST 50 zm³ko motorra salgai. 943887041-943160926.

Terreno bat erosiko nu-ke, ehizeko postuekin. Eguerdi edo gauean deitu. 689 714768.

Setter ingles txakurku-meak salgai. Aitak ehizean bikainak. 943683431.

Gorbeia euskal ar-tzain txakurkumeak eskain-tzen dira. Arrazakoak dira. 943-180371 (goizez)

Cocker hispaniel ingele-sa eskaintzen da arraza ho-betzeko, pedigree onekoa. 943 886164.

Pastor Aleman arrazako txakurkumeak salgai, pedi-greearekin. 696057346 - 943853244.

Olivetti idaz makina elektronikoa salgai. 943882278.

Ataun San Gregorioko Sute-gi taberna alokatzen da. Bezero ziurtatua. 943180354.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Irailak 4-5: Lournaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia), 943881828.

Irailak 11-12: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain), 943880232.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

IKASTEK
AKADEMIA
1999-2000 IKASTURTEA

Goierriko akademia integral bakarra

☎ 943 160 120

Joan Iturrlalde, 5 BEASAIN

HASIERA: IRILAK 6

Irailerako ikastaroak: udako nagiak astindu eta kurtsoa zihurtasunez hasteko

Lehen hezkuntza:

- ✓ Ortografia
- ✓ Irakurketa, idazmena
- ✓ Aho adierazmena
- ✓ Kalkulua, matematika...

Eskola laguntza

- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Lehen hezkuntza (6 urtetik aurrera)
- ✓ DBH, DBHO
- ✓ Goi mailako hezkuntza:
 - Unibertsitateak
 - Goi/erdi mailako ziklo formatiboak

DBH / DBHO

- ✓ Ortografia
- ✓ Testu komentaketak
- ✓ Idatzizko adierazmena
- ✓ Ikasketa teknikak...

Kontabilitatea: Eskuz, ordenagailuz

- ✓ Kontabilitatea eskuz
- ✓ Contaplus
- ✓ Nominaplus
- ✓ Facturaplus
- ✓ Ordutegi zabalak, talde txikiak

HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK GOIERRITARREN ZERBITZUAN

ERREZETA



Kontxi Mujika
Oiangu taberna
Ordizia

MARMITAKOA

Osagaiak: tipula, piper berdeak, azenarioak, tomateak, patatak eta atuna.

Kazuela batean olioak berotzen jarri eta tipula, piper berdeak, azenarioak eta tomateak bota, guztiak ere txikituta. Kolore piska bat hartzen hasten direnean, patata txikituak bota eta erdi egosirik daudenean, atuna bota. Guztiak batera egosi.

AHOLKUA

Bizkarreko minaren prebentzioa



Angeles San Juan
Farmazian lizentziatua
Ortopedian teknikaria
Farma-Etxe

Lunbalgiek eragin handia dute lan munduan. Horren aurrean zenbait prebentzio neurri hartu litezke:

Faxak edo kortseak

✖ Liseriketa egin bitartean lasatu litezke.

✖ Azpian kamiseta erabili izerdia xurgatzeko.

✖ Ur hotzetan xaboi neutroarekin garbitu eta airetan lehortu eguzkiak eman gabe. Belkroa bada, itxita egon behar da ilerik ez eransteke.

Jarrerak

✖ Ohe gogorrean lo egin, gorputza hondortzea ekidituz.

✖ Lepoa bere jarrera naturalean mantentzen duten burukoa erabili.

✖ Modu egokian eseri.

✖ Bidaetan, autoz bada, 2 orduero 10 minutuz atsedean hartu. Trenez bada, bagoi erdian eseri, gurpiletatik urrunduz.

✖ Kirol egokiena: igeriketa.

Zamak altxatzeko:

✖ Belaunak tolestu, ez bizkarra.

✖ Gauzak bularraren altuerara bakarrik jaso.

✖ Beti ziurtasunez zapaldu.

✖ Lurretik zerbait hartzeko esku bat belauanean edo beste nonbait ezarri.

✖ Kaxak gorputzaren ondo-

an eramateko.

✖ Hankak luzatuta ez makurtu ezta birarik eman ere zama bat goinena eramanez gero.

✖ Saiatu sorbalden altuera baino gorago zamarik ez jasotzen.

✖ Zama eramaterakoan, ahal bada bi besoetan banatu; erosketa gurditxoak erabili.

✖ Zutik egoteko oin bat altuan eduki, belaunak tolestu eta bizkarra zuzen eduki.

Zenbait jarrera

✖ Jarrera onean ibili oinez: burua tente, kokotsa biltdua, pelbisa aurreraka eta oinak zuzen. Oinetako erosak eraman, takoi alturik gabe.

✖ Zutik jarrera berdinean ez denbora asko egon.

✖ Ez aurreraka makurtu hankak luzatuta, ezta jarrera txarrean oinez ibili ere.

✖ Zutik edo oinez denbora asko egin behar bada, ez takoi alturik edo platafomarik erabili.



Mina ekidin, jarrerak egokituz

Egin behar dena: bizkarra zuzen mantendu
Egin behar ez dena: bizkarra gehiegi okertu



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA

CUESTA

oihaldenda

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak
Oihalak

Jai zoriontsuak denoi!

Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegitratzea
- Altzarigintza industrialak
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90 Mallotz, 25. pab.
Faxa: 943 88 82 67 ORDIZIA



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



sake
KOPERATIBAK

INEKO

ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA

- Pentsugintza eta zerbitzu guztiak
- Ongarriak
- Haziak
- Ureztatze sistemak
- Baratza eta jardinerako tresnak
- Ardientzat pentsu eta ongarri gama berezia

ITZIAR - DEBA

☎ 943 19 93 00 - 943 19 93 30 Faxe: 943 19 92 70



Xikel

NEVES

BANATZAILEA

ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA

Urdaneta, 41 ☎ 943 16 16 06

ORDIZIA



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz best

MANDUBIKO BENTA

jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierriko bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73


Euskal Jaiak

ORDIZIA


1999ko Irailaren 8



GOIERRIKO GANADUA



OILOAK



IDIAZABAL GAZTA



PERRETXITU, FRUITU ETA BARAZKIAK



Jon Mikel Murua

Ormaiztegiarra dugu Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazari eta Ingurugiro diputatu berria. Jon Mikel Murua (EA) injineru agronomoa da eta 32 urte ditu. Ormaiztegi-ko zinegotzia ere bada Murua.

Patxi Baztarrika

Ataundarra da Roman Suduperen, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusiaren, gabineteko burua. EAJ alderdikoa da Baztarrika.

'Turideia 99'

Gipuzkoako Merkatal Garbarak antolatutako 'Turideia 99' lehiaketan Agustin Linazasoro saritu zuten, Murumendiren magalean, Pagagorriagan, berak eta beste hainbat lagunek duten orein granjara turismoa erakartzen jakin dutelako. Hainbat ekin-tza egiten dituzte turismoa, abentura, baserriko produktak saltzeko.

Aralar

Euskal Herriko simarik sako-nenatariko bat aurkitu dute Aralar mendikatean. 584 me-



Irizarren euskara plana

Ormaiztegi-ko Irizar enpresak, Elhuyarrekina batera, euskara plana jarri zuen martxan joan zen udazkenean, eta orain arteko ibilbidearen balorazioa benetan ona dela diote bertako ki-deek. Lantegi barruko eta kanpoko harremanetan euskararen erabilera areagotzea du helburu nagusia planak eta lehen hila-bete hauetan dagoeneko euskara gehiago erabiltzen omen da ahozko nahiz idatzizko harremanetan.

Euskara ikasteko borondatea azaldu duten 50 lagunekin euskalduntze taldeak antolatu dituzte. Euskal hiztunak, berriz, lan arloka antolatutako Komunikazio Zirkuluak bultzatu dituzte.

Juanje Anduaga Irizarreko lehendakariak adierazi duenez, hau hasiera bakarrik da, enpresa euskalduntzea baitute helburu.

troko sakonerara heldu dira espeleologoak Lizurritzetako leizean, Irumugarrieta mendia-aren eta Arritzaga amilde-giaren artean.

Erga Omnes

Ordiziako musika taldeak Donostia Hiria Pop-rock lehiaketa irabazi zuen abuztuaren 7an. Ordiziako hiru-koteak diskoa grabatzeko aukera izango du sari honi esker. 1994an sortu zen taldea. Pop-rock elektrikoa egiten omen dute.

Emilio Sanchez

Lazkaotar txirrindulariak Euskadiko eta Espainiako errepideko txapelketak irabazi zituen uztailaren 10ean, gutxitu fisikoen mailan. 65 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuen. Erlojuak aurkako txapelketan berriz, Euskadiko txapelketa irabazi egin zuen eta Espainiakoan bigarrena izan zen. 14 kilometroko erlojuak aurkakoa burutu zuen. Europako txapelketatara joateko txartela lortu zuen lazkaotarrak.

Munduko txirrindu arinena Goierriin

Goierriko Lanbide Eskolan aurkeztu zuten uztailaren 15ean munduko txirrindurik arinena: 5,450 kilokoa. Marka honekin, Guinness errekor liburuan sartu da Dionisio Coronadok egindako txirrindua. Material bereziz egina dago txirrindua. Orain arte erabili ohi diren altzairua eta alumunioa baztertu, eta karbonoa eta titanioa erabili ditut. Titanioa bera ere oso berezia omen da. Materialak bakarrik miloi pezetatik gora balio omen du.

Enirio-Aralar Mankomunitatearen zerbitzu berria

Aralar mendira joan nahi baduzu ondo pasatzera eta pisua eramatea oztopoa bada, hemendik aurrera ez duzu arazorik izango. 943-885850 telefonora deitu eta Joxe Antonio goardarengatik galde-tu. Berari utzi zure zamak, nora eraman nahi dituzun esanaz.

Maria Antolina Ugaldek 100 urte

Zeraingo Maria Antolina Ugalde Gabilondok 100 urte bete zituen irailaren 2an. Segurako San Joan Egoitzan bizi da Maria Antolina eta urteurren hau ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituzten egoitzakoek. Txistulari, meza, bazkari, bertsolari, dantzak, abeslari eta abarrek zoriondu zuten zeraindarra. Zorionak lerro hauetatik ere!



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN



II. Igartza literatur sorkuntzarako beka

17 proiektu aurkeztu dira Beasaingo Udalak, CAF enpresarekin eta Elkarlanean argitaletxearekin elkarlanean antolatu duen II. Igartza literatur sorkuntzarako bekaren lehiara. 35 urtez behetikoak eta bi liburu baino gutxiago argitaratuak dituzten idazleak dira guztiak. Irailaren 10ean emango du erabakia epaimahaiak.

EGA azterketa: 1999ko bigarren deialdia

HABEk antolatzen dituen EGA azterketen 1999ko bigarren deialdia aurkezteko, kontuan hartu beharreko oharren berri eman digu Beasaingo Udal Euskaltegiak.

Atariko frogara irailaren 15ean egingo da, Beasaingo Udal Euskaltegiaren bertan. Azterketa idatzia, berriz, irailaren 28an Donostian eta ahozko frogara azkenik, urriaren 13an, Donostian.

Azterketa egin ahal izateko 17 urte beteak izango behar dira 1999an. Bestalde, derrigorrezkoa da aurtengo ikasturteren batean, ikasturtean zehar, udan edota irailaren 1etik 30era antolatutako ikastaroan, Udal Euskaltegiaren matrikulatua egotea. Informazio gehiagorako telefonoa: 943805254.

Ikasturte berrian ikastaro ugari aukeran

✓ Tenisa eta atletismoa euskaraz

Euskara eta Kirola programaren barruan, Beasain, Lazkao, Ordizia eta Zaldibiako udalek tenis eta atletismo ikastaroak antolatu dituzte irailean.

● **Tenis ikastaroa:** Tenisaurrea, teknika, metodologia, tenisari egokitutako jolasak... landuko dira. 14 urtetik gorakoentzat da ikastaroa eta 12 ordukoa izango da. Irailaren 11n hasiko da, Beasaingo Antzizar kiroldegian.

● **Atletismo ikastaroa:** 14 urtetik gorakoentzako ikastaroa da. 12 orduko iraupena izango du ikastaroak eta Lazkaoko J.M. Barandiaran kiroldegian izango da, irailaren 25ean hasita.

Ikastaroetako matrikula 3.000 pezetakoa da. Beasain, Ordizia, Lazkao eta Zaldibiakoei ikastaro amaieran %75eko asistentzia izan badute matrikula osoa itzuliko zaie. Izenak Lazkaoko, Ordiziako eta Beasaingo kiroldegietan eta Zaldibiako Kultur etxean eman behar dira.

✓ Elikagaien kontserba eta sendabelarrak

Goiekik eta Beasaingo Udalak antolatuta, irailean, oraindik egunak zehazteko daude, eligaien kontserba artesauki ikastaroa eta sendabelar ikastaroa izango dira, Beasaingo Ezkiaga Auzo Etxean. Izena emateko telefonoa: 943-805235.

● **Elikagaien kontserba artesauki:** elikaduraz arduratuta eta kontserbak egin nahi duen edonori zuzentzen zaio ikastaroa. Kontserba egiteko produktuak nola jaso, bildu edo erosten jakitea eta kontserba teknika mota desberdinak ikastea ditu helburu ikastaroak. Astean bi egunez, astearte eta ostegunetan 18:30etik 21:00etara, izango da ikastaroa, Rakel Diaz Rodriguez irakaslearen eskutik. Guztira 40 ordukoa. Ikastaroa gazteleraz izango da.

● **Sendabelarren ikastaroa:** Edonork parte har dezake ikastaroan, baina bereziki sendabelarren edo natur denda duten edo izango

dutenei begira dago antolatua, nola belar mota desberdinen "lehorketa" edo kontserbatara dedikatu nahi diren pertsonen. Inguruko landare arruntenak ezagutzea, mendian bertan landareak berrietea eta bakoitzaren propietate eta berezitasunak jakitea da ikastaroaren helburua. Horrekin batera, landareekin xarabe, ukendu, olioak, enplaste e.a. egiten ikastea. Landareen kontserbazio mota ezberdinak ere erakutsiko dira. Azkenik, lanbide edo lan irtenbide berriak azalduko dituzte. 16 orduko ikastaro praktikoa izango da. Mendi irteerak egingo dira bertako landareak, beren propietateak eta berezitasunak ezagutzeko. Jasotako landareekin eta lortutako besteekin errezetak egingo dira. Astelehen eta asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara eta larunbat goizetan izango da ikastaroa, Beasaingo Ezkiaga Auzo Etxean. Ikastaroa ziurrenik gazteleraz emango da, Alberto Luengo irakaslearen eskutik.

✓ Santiago bidea Euskal Herrian

Santiago bidea Euskal Herrian ikastaroaren barruan, Zegaman ikastaroa izango da irailaren 18, 24, 25 eta urriaren 1 eta 2an, batez ere, etorkizuneko turismoko gidak izango direnentzat zuzendua. Goiekik eta Zegamako Udalak antolatu dute ikastaroa, Europako Fondo Sozialaren laguntzarekin.

Santiago bidea ikuspegi historiko, ekonomiko eta artistiko-kulturaletik aztertuko da. Bigarren gai batean, Euskal Herriko erliebea, hidrografia, klima eta landareetatik aztertuko da. Hirugarrenean, Gipuzkoako eskualdeak eta Santiago Bideko errepideak landuko dira. Laugarren zatian, gidaren irudia eta jarrera, aurkezpene eta ibilbidearen azalpena nola egin adieraziko dira. Azkeneko egunean, praktikan jarriko da ikasitakoa.

Ikastaroaren ordutegiak: ostiraletan 16:00etatik 19:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko deitu Zegamako udaletxera. Telefonoa: 943801115. Informazio gehiago Zegamako kronikan duzue.

1999-2000 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

IKASTAROAK	MATRIKULA EPEA	MAILAK
2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldez eta gaeuz	Irailaren 24erarte goizez eta arratsaldez	Euskalduntze Alfabetatze EGA

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

GOIZTIRI  **EUSKALTEGIA**

INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO
ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 943 88 91 74
BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40
LAZKAO: Elozegi, 16 - 2. ☎ 943 88 91 74

MARIJE INTXAUSTI LAZKAOTARRA, GIPUZKOAKO EHNEko LEHENDAKARIA:

"Denok egin behar dugu apustu, bestela hemendik 20 urtera ez da baserritarrik izango"

Lazkaomendiko Iztueta baserriko Marije Intxaustik urtebete pasatxo darama Gipuzkoako Euskal Herriko Nekazarien Elkarte (EHNE) lehendakari postuan. Oztopen aurrean, baserriaren alde apustua egiteko garaia dela dio EHNEk, baserriari eta geure nortasunari eutsi nahi badiogu. Gizartea kontzientziatzearen beharra ikusten du lazkaotarrak.

- Baserriaren alde apustua egiteko garaia dela diozue. Zergatik? Nork egin behar du apustu?

- Azkeneko urteotako baserriaren beherakada oso nabarmena da. Gero eta jende edadetuagoa dagoelako baserrietan, ezintasuna gero eta handiagoa delako, eta agian nolabaiteko etsipena sortu delako baserritarren. Garbi ikusten dugu apustua egiteko garaia dela, hemen-



dik urte batzutura lamentazioak alperrikakoak izango baitira. Egoera latza da, prezio aldetik azkeneko 10 urteotan berdinak dira, gastuek gora egin dutenean. Gu prest gaude apustua egiteko baina gizarteak, kontsumitzaileak du azken hitza. Azken urteotan erosteko ohiturak aldatu egin dira. Askoz ere errazagoa zaigu erosketak egitera zentru handietara joan, nondik ekarritakoak diren jakin gabeko produktuak erostea. Kontsumitzaileak bertako produktuak erosi behar ditu. Egia da guk ere gabezia izan dezakegula baserritarrok, kontsumitzaileengana iristerakoan. Leku guztiera ez gara iristen baina iristen gare-

netan, beheraka doa kontsumoa, eta bultzada eman behar zaio.

Apustua esaten dugunean, guztion apustua esan nahi dugu, bai baserritarrona, baita administrazioena eta bai gizartearena. Apustu horretan sinisten baldin badugu bakarrik izango du baserriak etorkizuna. Denon artean egin behar dugu apustu, bestela hemendik 20 urte ez da baserritarrik izango.

- Agintariei zer eskatzen diozue?

- Hemengo agintariek Europatik markatzen duten politika jarraitzen dute. Hemen dioxinetan erori nahi ez baldin badugu, guk beste apustu bat egin beharra daukagu eta administrazioak zerikusi handia dauka. Gu prest gaude administrazioarekin batera elkarlan bat egiteko. Jaur-laritzan eta Diputazioan ez da horrelakorik ikusten. Agintariak aldatu dira, eta ikusiko dugu. Jaur-laritzan hala ere, ia urtebete honetan, ez dago elkarlanerako aukerarik.

Bertarako nekazaritza politika egin beharra daukagu. Zer daukagun eta zein arazo dauden ikusi, eta horren arabera nekazaritza politika. Horretarako elkarlana erabat beharrezkoa dugu. Elkar lagunduta zaila izango da, baina bata besteari muzin egin da oraindik gutxiago. Baserritarrekin kontatu beharra daukate zer egin behar den jakiteko.

- Eta gizarteari?

- Kontzientziatze lana egin behar da. Ahalik eta produktu merkeenak erosi nahi ditugu, eta aldi berean kalitatea eskatzen dugu. Prezio baxukoa dena ezin da kalitatezkoa izan. Kalitateak kostu bat dauka. Gure gurasoentzat garrantzitsuenak janaria zen, guretzat ez hainbeste. Janariak guztia esan nahi du. Janari txarra jenez gero, farmazian gastatu beharko duzu dirua. Baserritarri elikadurak ateratzea kostatu egiten zaio. Kontsumitzaileak jakin egin behar du kostu bat dagoela eta ordaindu egin behar dela. Jendeak ez du baloratzen.

PUB

Festa onak pasa!

sugaar

A s t o k a l e
O R D I Z I A

OIANGU

T A B E R N A

☙ ☙ ☙

☎ 943 88 30 03

Euskalerria z/g **ORDIZIA**

HERRI BATASUNA

Ordiziar eta bisitari guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ORDIZIA

KOIOTE

KOIOTE

Jai zoriontsuak

Zaldizurreta Kalea
BERSAIN

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

Labelak hor daude. Bertako produktuak, kalitatezko produktuak, ezberdindu egin behar ditugu kanpotik datorren jeneroarengatik babesteko. Baina hainbeste izenen artean, nahasketa handia dago. Bultzatu egin behar dira bertako produktuak, baina ez da asmatzen, aurreko kontzientziazio lanik egin gabe dagoelako.

- Europatik 'Agenda 2000' plana dator orain. Zein ondorio izango du?

- Europa famatu horretan sartu ginen eta baserriarroi ez digu ezer onik ekarri. Mundu mailan merkatu guztia liberalizatu nahi da. Guretzat oso kaltegarria da hori, baserri eremu txikiak eta aldapatsuak ditugu, eta ezin dugu Holandako lautadetako baserri handiekin konpetitu. 'Agenda 2000'k prezioen jaitziera, batik bat haragiarena, ekarriko digu. Esnearekin orain ere nahikoa arazo baldin badaukagu, mugak irikitzen badira, Amerikatik hormonaz betetako esnea ekarriko digute eta gu lur jota geldituko gara. Prezioak jaitسي eta diru laguntzak eskaini nahi dizkigute berriro. Hori oso kaltegarria da.

Merkatua ahalik eta ger-



"Azpiegitura handiak, industrialdeak, etxebizitzak... lur eskasia daukagu. Lur hoberenak kentzen ari zaizkigu".

tueneko lekuan egin behar da. Handik eta hemendik produktuak ekarri, garraioan gastu gehigarri bat dago. Diru publikoa oso-oso gaizki erabiltzen da eta ez dut uste erremediatzeko asmorik daukatenik.

- Gero eta baserriar gutxia dago.

- Lanpostuak gutxitzen ari dira bai, eta gaudenak gero eta zaharragoak gara. Gipuzkoan % 50 55 urtetik gorakoak dira baserriarrek. Gazteak gutxi datoz. Lanpostuak gehiago ez jaisten ahalegindu behar dugu. Erdiak 50 urtetik gorakoak baldin bagara, hemendik 10 urtera oraingo erdiak egongo gara. Gazteak etortzeko baldintzak jarri behar dira. Edatetuei jubilazio duin bat jarri eta ondorioz gazte bat sartzeko baldintzak

jartzea, irtenbideetariko bat izango litzateke. Diputazioak zer esan handia dauka, konpetentzia handiak dauzka eta.

- Gero eta nekazal lur gutxiago dagoela salatzen duzue.

- Alde batetik, azpiegitura handiak, industrialdeak, etxebizitzak... direla eta lur eskasia daukagu. Lur hoberenak kentzen ari zaizkigu. Hiriak gero eta gorago ari dira egiten eta basoak gero eta beherago datoz. Tarte hori gero eta estuagoa da. Beste aldetik, gero eta gehiago ikusten duguna da, baserriarrek aktibitatea uzten dutenean, batzuk pinua sartzen badute ere, beste hainbat lur sail libre gelditzen direla. Antolaketa falta izugarria dago. Lur horiei erabilera eman

behar zaie, edo errentan jarrita, edo permutak eginez...

- Baserriak gabe gure nortasuna galtzeko litzatekeela diozue.

- Gure baloreak baserrietan mantendu dira. Gero eta gizarite hiritarragoa daukagu eta galtzeko arriskuan ere badaude balore horiek. Baserria izan da nortasun horren kutxa, hizkuntzarena ere bai. Daukagun ingurunea mantentzeko lan egin duena ere baserriarra izan da, nahiz eta inork ez errekonozitu. Gero eta baserriar gutxiago dago eta nork mantendu behar du ingurunea? Sasia uztea da errazena.

- Ordiziako azokako saltzaileen adina ere altua da.

- Baserriarrek badaude produktuak Ordiziara eramateko, baina aldaketa bat eman behar litzateke, mantentzea nahi badugu. Lan serio bat egin beharko luke udalak. Merkatuen joera; pribatizatzeara da, Donostiako Bretxa, Errenteriakoa... baina merkatuak publikoa izan beharko luke. Merkatura joango litzatekeen jendea badago, eta bultzada eman beharko lioke Ordiziako udalak. Erosleen adina ere handia da. Kontzientziazioa behar da.



JOSUNE
ESTETIKA ZENTRUA ETA USAINDEGIA

- * Zutikako eguzki-kabina: gaur egun munduan dagoen azkarrena eta iraultzaileena ere badaukagu, 8 minututan azala belztu eta babesten duena
- * Tratamendu bereziak: gorputz eta aurpegirako.
- * Mikropigmentazioa: ezpainetako eta betiletako makilaje iraunkorra

J. M. Barandiaran pl., 3 ☎ 943 88 28 88 ORDIZIA

Kiska
PUB

Santa Maria

ORDIZIA

Arkupe
tapizegia


Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak
Mantak - Maindireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA

Jai zoriontsuak denoi!



GOITGI
OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etkezaretara z/g
ORDIZIA ☎ 943 160501

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 943 880737

MIKEL ZEBERIO GASTRONOMOA GAZTA ETA ARDO DASTAKETAN ADITUA:

"Gazta erditik ebaki orduko jakin liteke ona dagoen ala ez"

Sentimentuz ataundarra da, Mikel Zeberio, nahiz eta Bilbon jaio. Txikitan uda guztiak Ataunen pasatzen zituen. Aita, Joxe Antonio Zeberio sukaldaria, Atxurrenekoa da, Ataunen Hergonetik gora. Ama, hau ere sukaldaria, Gamizkoa. Ia 16 urte egin zituen fisika, kimika eta biologia irakasten. Orain dela 18 bat urte taberna jarri zuen Bilbon, 'Bordatxo', famili guztia tabernajetxe mundura dedikatu baita. Orain berriz gastronomoa da, argitaletxe bat du eta Bilbon Viandar de Sota jatetxea.

- Nolatan gastronomo?

- Banuen sukalderako afizioa, elkarte mailan eta egiten nuen. Taberna utzi egin nuen, ordurako dastaketa munduan eta sartuta nengoen, ikastaroak ematen ari nintzen ardo edo gazta dastaketei buruz. Editorial bat antolatu eta prentsa munduan sartu nintzen. Baina batez ere ikuspuntu pedagogikotik. Ni inoiz ez naiz izan kritikoa, beno, denok gara kritikoa, bakoitzak bere iritzia duelako, baina ez dut inoiz



kritikarik idatzi. Denok hitz egiten dugu gaztari edo ardori buruz. Pentsatzen dugu badakigula baina ez dakigu. Ohituraz edo, hartutako irizpideen arabera epaitzen dugu eta uste dugu horrekin nahikoa dela. Azterketa sakon bat egiten badugu, nahiz eta Euskal Herrian egon, nahiz eta oso ondo jan, nik uste dut asko ikasi behar dugula. Euskal Herrian piska bat errentetatik bizi gara. Garai batean, dudarik gabe, estatu mailan aurreratuenak ginen janari eta edari munduan baina gaur egun ez. Aurrerapausuak eman beharrean gaude.

Gabonak aldean Estatu mailan aldizkari gastronomiko bat atera behar dugu eta bere ardatza pedagogia izango da. Irakaskuntza bultzatu nahi dugu, jendeak ikas dezala.

- Geroz eta gehiago al dakigu?

- Ez dakit, agian dakigula uste dugu, baina gure sakon-sakonera begiratzuz gero, agian pentsatzen duguna baino gutxiago dakigu. Gaur egun nahikoa daukagu, gure lanarekin, familiarekin, arazoeekin. Ez ditugu minutu batzuk pasatzen gazta bat usaintzen, aztertzen eta nik uste dut hori lortu behar dugula.

Gastronomoaren lehenengo lana ikastea da eta zenbat eta gehiago ikasi; orduan eta gehiago konturatzen zara zenbat duzun ikasteko. Nik ez dut zientifismoa defendatzen, erabeteke jakintza, baina jakite horren bila joan behar da. Jolasaren bidez hori lortu dezakegu. Nik ideia hau eskoletara eraman nahi dut. Gastronomia, ez historia aldetik, baizik eta gauza fisikoa bat bezala eskoletan irakatsi behar da. Gaurko gazteek oso urruti dute gastronomia.

- Gaztaren munduan nondik sartu zinen?

- Ni gaztagile izan naiz, gaztandegi bat izan genuen gazte batzuk, esnea erosi eta gazta egiten genuen. Nahiko enpirikoa naiz, defendatzen dut zerbaiti buruz iritzia emateko jakin egin behar dela. Jakiteko ia bide bakarra, praktikan egitea da. Urte guztia gazta egiten, esnearen gainean pasatzen baduzu, horrek sendotasun handia

ematen dio gaztari buruz dakizunari.

Idiazabal Izendapena martxan jarri zenean gu aurka egon ginen eta gogor gainera. Orain ere pentsatzen dut momentu horretan arrazoa genuela. Guk Euskal Herriko gazta uniformizatu-ko zen beldur ginen. Gaztagile bakoitzak gaztari bere ikutua ematen dio eta hori mantentzea lortu dela uste dut. Ezberdina baita adibidez kosta ertzeko gazta eta mendikoa. Gaur egungo kalitateko elikagaietan, jendeak zer den hobekien ulertu duena eta agintariekin hobekien lan egin dutena, nik uste dut Idiazabal gazta dela.

- Idiazabal gaztaren kalitatea hobetu al da?

- Orain gazta askoz ere era kontrolatuagoan egiten da. Lehen artzai baten gazta hartzen zenuen eta oso ona zegoen, beste gazta bat hartu eta txarra zegoen. Orain gazta guztiak neurri batean nahiko onak dira, agian falta dira 10era iristeko punta hoiek baina 'notable' batean gabilitza, lehen gora-behera gehiago zegoen. Ordiziako lehia- ketan gertatzen da hori, ardi gutxi dituzten artzaiak joaten direla eta punta horiek azaltzen dira. Baina orokorrean gaur egun artzainak gehiago daki, baldintza egokiagoak dira eta gazta hobea egiten da.

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia



- Dastaketa ez al da subjeti-boa?

- Gaztaren dastaketa subjeti-boa izan arren, parametro batzuk behar dira. Ez da esan behar ona dago, erdipurdikoa edo txarra. Idiazabal gaztarekin lan handia egin da eta gazta baten dastaketa nahiko objetiboa da. Gaur egun gazta bat erditik ireki eta gehiago gabe jakin liteke ona edo txarra dagoen. Zaporea eta usaina subjetoak izan arren, kolorea, forma, testura, objetiboak dira eta pisu handia dute erabakia hartzeko garaian.

- Baina norberak bere gustuak izango ditu.

- Oraindik batez ere adineko jende askorentzat gazta fuer-tea, ebakitzeraokan hausten dena da ona. Batzuei horrela asko gustatuko zaie baina gazta hori gaizki dago. Gaztak gaitz jakin bat, saponifikazioa, duenaren seinale da. Gaitz hori gaztaren koipearen degradazio bat da, xaboi zaporea emanez. Gaztak behin denbora bat pasaz gero beherantza egiten du.

Denak du bere esplikazioa. Adibidez, aurpegiak obalatuak badaude esan nahi du barruan zuloak daudela, hauek bakterio termofiloek sortzen dituzte. Bakterio hauek esnea gehiegi berotutakoan azaltzen dira.

Nik uste dut gazta noiz eta handiagoa kalitate hobekoa dela: noski saltzeko garaian egokiagoak dira gazta txikiak osoak saltzeko.

8 parametro hartu behar dira kontuan gazta aztertzeko



Forma egokiena:

- ✓ Zilindrikoa
- ✓ Proportzionatua: altuera 8 eta 12 cm artean, diametroa 10 eta 30 cm artean eta pisua 0,9 eta 3 Kg artean.
- ✓ Homogeneoa eta erregularra.
- ✓ Aurpegiak nabarmenki lauak eta paraleloak.
- ✓ Aldeak arinki konbexuak.
- ✓ Ertz borobilduak gazta txikietan eta zorrotzak handienetan.

Azal egokiena

- ✓ Gogorra.
- ✓ Lisoak, kanpoko eragileen arrastorik gabe.
- ✓ Erabilitako trapuen arrasto arin batzuekin.
- ✓ Kolore homogeneoa, hori ahul edo gris txurizka batetik nabar ilun batera, gazta ketuen kasuan.
- ✓ Alde batean bandearen arrastorik ez du izan behar.

Orearen kolore egokiena

- ✓ Homogeneoa.
- ✓ Aldakorra (marfil koloretik lastokara hori-
ra).
- ✓ Matea.
- ✓ Inguru estu eta ilunxka.

Behien (zulotxo) egoera egokiena

- ✓ Ordenarik gabeak.
- ✓ Ez gehiegi.
- ✓ Forma irregularra gehienetan.
- ✓ Arroz alea baino txikiagoak, gehienetan oso txikiak (mm1 baino txikiagoak).
- ✓ Pitzadurarik ez.

Usain egokiena

- ✓ Berezko usain bizia.
 - Ardi esne eboluzionatua.
 - Sarkorra eta garbia.
- ✓ Ahulki mina.
- ✓ Azido aldakorra (intentsitate bat ere ez edo zerbait).
- ✓ Gozo aldakorra (intentsitate bat ere ez edo ahula).
- ✓ Intentsitate erdiko kearena, gazta ketuetan.
- ✓ Usain arrotzik gabea.

Ehundura edo textura egokiena

- ✓ Elastikotasun ahula.
- ✓ Kremositate eta tinkotasun zerbait.
- ✓ Bikor oso ahulak.

Zapora egokiena

- ✓ Berezko zaporea, orekatua eta bizia.
 - Heldutako ardi esnearen izaera.
 - Gatzagi naturalaren zapora piska bat.
 - Garbia eta sendoa.
- ✓ Ahulki mina.
- ✓ Gozoa eta garratza aldakor (intentsitate oso ahuletik erdi mailakora).
- ✓ Mingostasunik ez.
- ✓ Gazia erdi mailako intentsitatean.
- ✓ Kearena erdi mailako intentsitatea edo ahula gazta ketuetan.

Uzten duen zapora egokiena

- ✓ Berezko zaporaaren jarraipena.
- ✓ Iraunkorra.
- ✓ Nabarmena.

- Ketua ala ketu gabea?

- Jende asko dago ketuen kontra baina ni alde nago. Askorentzat ketua ez bada ez da Idiazabal. Horrek esan nahi du identitate zeinu bat dela eta, beraz, ezin dugu

galdu. Hori bai, ondo ketu behar da gazta.

- Gazta onarekin ardo ona.

- Nik uste dut ardo beltza gaztarekin ondo doala, baina dudarik gabe ardo txuria as-

koz ere hobeto doa gure gaztarekin. Ariketak eta probak egin behar dira hau ulertzeko. Tokian tokiko janariak bertako edariekin ondo doaz, beraz hemengo gazta sagardoarekin ere ondo doa.



ORLEGI

EUSKAL JAIAK
ONDO PASA

ETXEZARRETA, 3
ORDIZIA



BIÑASPRE

Uda ondorengo azalberritze tratamenduak gure estetika zentruan, BIÑASPRE. Aurpegiaren dizitiraren sekretua egunero azalaren zaintzan erabiltzen diren 5 minutuetan dago. Zure azalaren beharrei egokitutako tratamendu pertsonalizatuak.

BIÑASPRE LURRINDEGIAN.

K. Nagusia, 8 **943 88 13 37** **ORDIZIA**

USAINDEGIA
OPARIK
ESTETIKA ZENTRUA

Kontsulta ezazu!

Euskal Jaiak Ordizian irailaren 3tik 12ra

Gaur bertan, irailaren 3an, hasiko dira aurtengo Euskal Jaiak Ordizian. Egunik handiena eta bereziena, asteazkenekoa, azoka bereziarena izango bada ere, aste gutxian zehar bada zer ikusi eta dastaturik. Euskal Jaiei egi-taraua duzue jarraian:

Irailak 3, ostirala:

- ✓ Jesus Jauregiren lanen eta 'Euskal Pilota jokua' erakusketen inaugura-zioa Barrena Kultur Etxean, 19:00etan.

Irailak 4, larunbata:

- ✓ 11:30etik 13:30era eta 16:00etik 20:00etara, haurrentzat parkea Joxe Migel Barandiaran plaza-n.
- ✓ 22:30ean: Tirri Tarra fanfarrearen Priscilla ikuskizuna Plaza Nagu-sian.

Irailak 5, igandea:

Erretiratuen eguna:

- ✓ 9:00etan: Diana trikitila-riekin.
- ✓ 11:00etan: Meza nagu-sia.



Infantil eta helduen mailako dantza txapelketak jokatu dira Oiangun, irailaren 12an.

- ✓ 12:00etan: Laguntasuna Errondailaren emanaldia Erretiratuen etxean.

- ✓ 12:30ean: Trikitilariak.

- ✓ 14:15ean: Bazkaria erre-tiratu eta pentsionisten-tzat, pilotalekuan.

- ✓ Ondoren: Jelatxo orkes-trarekin dantzaldia.

Irailak 7, asteartea:

- ✓ 17:30ean: IX. Elkar-teko bertako produktuen lehiaketa gastronomikoa eta V. Goierriko odolkia-ren dastaketa-lehiaketa, Plaza Nagusian.

Irailak 8, asteazkena:

- ✓ Aparteko azoka.

Irailak 10, ostirala:

- ✓ 22:15ean: Mikel Urdan-garin, Plaza Nagusian.

Irailak 11, larunbata:

- ✓ 10:30ean: Ginkana hau-rrerentzat, J.M. Barandia-ran plazan.
- ✓ 22:30ean: Bertsolariak Herri Antzokian: Madda-len Lujanbio, Nahikari Gabilondo, Unai Iturria-ga, Jon Maia, Igor Elor-tza eta Joxe Munduate.

Irailak 12, igandea:

- ✓ 9:00etan: Argazki rall-ya.
- ✓ 11:00etan: Pintxoak eta ardoa, Oiangun.
- ✓ 12:00etan: VIII. Lazkao Txiki bertsopaper lehia-ketaren sari-banaketa, Barrenan. Maila bakoit-zeko irabazleak: heldue-tan Ekaitz Goikoetxea; gazteetan Irati Goikoe-txea; eta gaztetxoetan Oier Zurutuza.

- ✓ 12:00etan: Suelto-ko dantza txapelketako fina-la, infantilen mailan, Oiangun.

- ✓ 13:30etik 14:30era: Tri-kitilariak, Oiangun.

- ✓ 16:00etan: Haurrentzat jokoak eta toka txapelke-ta, Oiangun.

- ✓ 17:30ean: Helduen suel-to-ko dantza txapelketa, Oiangun.

- ✓ 19:00etatik 21:00etara: Trikitilariak.

ARANTXA

taberna

PINTXO ETA
OGITARTEKO
BEREZIAK

☎ 943 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA

MIAMI

kafetegia

Etkezarreta kalea
ORDIZIA



- Eguneroko menua
- Asteburuetan afariak kartan

☎ 943 88 39 60
Gudarien Etorbidea
ORDIZIA

Ordiziako aparteko azoka, irailaren 8an



Kalitatezko produktuak izango dira erakusgai eta lehian Ordizian asteazkenean.

Ordiziako azokaren egunik handiena iritsi da. Asteazkenean, irailaren 8an, izango da egun handia. Jendetza handia hartzeko prest dago Ordizia.

Goizeko 9etan, Ordiziako txistularien, Tolosako dultzaineroen eta Zumarragako trikitilarien diana izango da.

Ordurako baserritarrek postuak txukunduta izango dituzte bertaratzen direnentzat gozagarri. Arlo ezberdinetako epaimahaikideak

10etan hasiko dira lanean. Frutu, barazki, perretxiku, gazta, ganadu eta euskal oiloen lehiaketak izango dira garrantzitsuenak. Urdaneta kalean, ohi bezala, artisauen postuak egongo dira ikusgai.

Eguerdiko 12etan, J.M. Barandiaran plazan banatuko dituzte fruta, barazki eta perretxikuen sariak. Ganaduen sariak, 12:45ean, Garagartza plazan banatuko dituzte. Beti ere, trikitilari, bertsolari eta dultzaineroen doinuek alaiturik.

13:00etan, Beti Alai pilotalekuan, Idiazabal gaztaren txapelketa ospetsuaren irabazlearen berri emango da. Ondoren, gazta erdiaren enkantea egingo da. Iaz, Olaberriako Prycak gazta erdiagatik 580.000 pezeta ordaindu zituen.

Arratsalde partean ere izango da zer ikusirik. 17:30ean, Beti Alai pilotalekuan, profesionalen eskuzko pelota partiduak izango dira.

19:00etan, Donostiako Kresala dantza taldearen emanaldia izango da Plaza Nagusian.

Eta egitarauarekin bukatzeko, 19:30etik 21:30era, trikitilariak ibiliko dira alde zaharrean.

Labeldun produktuak

Aurtengo edizioan, Labela duten produktu gehienak erakusgai izango dira J.M. Barandiaran plazan.



Iraileko azoka berezi honetan jende ospetsu askoren bixita izaten da. Iazko argazkian, Etxebarren Errealeko mediku ohia, Arzak sukaldaria eta Alfredo Landa aktorea, gaztak dastatzen.

ZELAETA NEKAZAL TRESNAK

Carlos Oiarbide Albizu



SABO



SAME Jonsered

Banatzaile ofiziala

Beasain-Durango errep. 18 area (Tejeria zaharra)
ORMAIZTEGI Tfnoa-faxa: 943 16 15 15



LUBERRI Loradenda

- ✓ Andregai lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Ezkontza opariak

Euskal jai zoriontsuak!

J.M. Barandiaran, 3 16 04 79 ORDIZIA

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta
943 88 72 76

ORDIZIA

Festak berriro ere

Uztaileko Santa Ana jaiak pasatu ondoren iraileko euskal jaiekin emango dizuegu berriro ere hasiera. Ekitaldiz betetakoa izan bazen bata, oraingoa ez da atzean geratuko (ikus erdialdeko gehigarri berezia). Ekitaldi guztietatik nagusiena irailaren 8an, asteazkena, egingo den berezia izango da. Eguerdian, pilotaleku estalian, gazta sarrituen enkantea egingo da eta azken urtetakoak ikusita ziur irabazlea suertatuko den gazta erdia etxeratu nahi duenak poltsikuari astindu ederra eman beharko diola.

Bertsolari sarituak

VIII. Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako irabazleak zeintzuk izan diren argitu dute dagoeneko Goierriko Bertso Eskolako antolatzaileek. 30 lanetik gora aukeztu ziren guztira eta epaimahaikoen iritziz honakoak izan ziren idatzitako bertso onenak: Helduetan Ekaitz Goikoe-txea beasaindarrarentzat izan da lehen saria. Bere lanaren izenburua "egunaren jira-biran" izan da. Epaileen ustez Zarauzko Nikolas Zendoia- ren "astoa" lanak merezi zuen bigarren saria eta azke-

nik Zaldibiako Rufino Irao- laren "San Franziskoren li- burutik" bertso lanak eskura- tu du hirugarren saria. Gazte- en mailan Beasaingo Irati Goikoetxearen "erbia eta dordoka" bertso lana izan da saritua, ondoren Hendaiako Amets Arzallusen "gasolina superra" eta hirugarren saria Urruñako Sustrai Colinare- n "gau ilunean barne" lanaren- tzat izan da. Gaztetxoetan Oier Zurutuza ataundarrak jaso du saria, honen herkie- da den Aitzol Munduateren lana izan da bigarren eta Azkaine- ko Maindi Muruak jaso du hirugarrena. Maila honetan guztiek gai bera zuten, men- dia.

Sari banaketa irailaren 12an izango da eguerdiko 12etan Barrena Kultur Etxe- an. Ekitaldiaren amaieran sarituek beren bertsoak kan- tatuko dituzte. Lerro hauek aprobetxatuz antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie Lazkao Txiki Bertsopaper honetan parte hartu duten guztiei.

Bertso jaialdia

Euskal festen barruan bertso- lari jaialdia egingo da iraila- ren 11n Herri Antzokian.

Ekitaldia iluntzeko 10.30ean hasiko da eta bertsolariak ho- nakoak: Maialen Lujanbio, Nahikari Gabilondo, Joxe Munduate, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Jon Maia.

Futbol taldeak

Futbol denboraldia hastear dagoen honetan Ordizia Ki- rol Elkarteak zazpi talde izango ditu aurtengoan. Go- goratu helduek jeitsiera lortu zutela eta orain mailarik ba- juenetik hasi beharko dira, errejonaleko bigarren maila- tik hain zuzen. Zuzendaritza erabat aldatu da eta Vicente Trujillo izendatu dute zuden- dari. Esan beharrik ez dago talde honen helburua lehen- bait lehen Ordiziak merezi duen mailara igotzea izango dela.

Bestalde hor izango dira ohorezko mailako jubenilak, bigarren mailako jubenilak, lehen mailako kadeteak, bi- garren mailako kadeteak, ohorozko mailako infantilak eta emakumezkoena. Azken hauek lehen aldiz arituko di- ra lehen.

Foto Ibiltaria garaile

Uztaileko kontua bada ere herriko lagunarteko saskiba-

loi txapelketak aipamena merezi du. Hilabete t' erdi ze- har lehen aritu ondoren fina- lera iazko txapeldunak, Wis- kas eta Foto Ibiltaria iritsi zi- ren. Ikusle kopuru handia izan zen aipatu neurketa ikusten eta bertan Foto Ibil- tariako mutilak nagusitu zi- ren 80-60. OKE Saskibaloia taldeak antolatzen du txapel- keta eta parte hartu duten tal- deak ikusita ziur datorren ur- tean ere estaligabeko pilota- lekuan saskibaloia neurketa politik ikusteko aukera izan- go dugula.

Urrup antzerki taldea

9 gazte ordiziarrek osatzen dute Urrup antzerki taldea. Denak ere antzestea gusto- koa dutelako osatu zuten ha- siera batean taldea, eta nola ez baita denon arteko umore onez ondo pasatzeko. Egun "Auto" izeneko antzeslana dute prestatuta eta Ordizian bertan jai nagusietan egin zu- ten aurkezpena. Jarraian in- guruko beste hainbat herritan antzestuko dute, hala nola, Arrasate, Beasain, Ormaizte- gi, Zaldibia eta Zegaman. Lana eukaraz eta gazteleraz prestatu dute.

Aitor Calvillo

MUGU

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrek: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 15 ☎ 943 88 82 52 **ORDIZIA**



● Azken teknika eta nobedadeak

● Ezkontza eta ospakizunetarako orrazkera bereziak

● Tratamendu bereziak: eguzkitarako, ile erorketa, e.a.

● Makilajeak, Manikura...



Presio altuko solariuma

ZALDIBIA

Zaldibitarrak Perdidora



Gailurrerantz Kirol Elkartek mendi irteera antolatu du, Perdidora, asteburu honetarako. Bihar goizean abiatu eta, Gorizko aterpean gaua pasa ondoren, igande arratsaldean iritsiko dira, ondo bidez, Hueskako probintzian dagoen 3355 metroko gailurrera, 30 bat zaldibitar. Udar izan dute zango eta oinetako giharrak ondo prestatzeko astia.




Ausa gaztelua

Gaztelu mendiari izena bertan aurkitutako eraikin baten aztarnak eman diote. XIV. gizaldiaren hasieran nafarrek gotorleku bat eraiki zuten Nafarroako erreinua gipuzkoarren erasoetatik (orduan Gaztelaren menpe) babesteko. Izan ere, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko muga egiten zuten orduan gaur Ausa-Gaztelu izenez ezaguna den mendiak.

1335. urtean gipuzkoarrek bereganatu zuten Ausa gotorlekua, baina gerratearen ostean erabat birrinduta geratu zen. Oraindik gordetzen dira gazteluaren aztarna batzuk.

Euskal Herriko historia ezagutzeko asmoz aztarna hauek ikertzen aritu da arkeologo talde bat aurtengo udan, Aranzadik bideratuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagunduta.

Talde honek aztarnategi hori ikertzen jarraitzeko asmoa azaldu du. Dena dela, urte amaierarako Ausa gazteluaren historia idatziz kaleratuko dutela adierazi dute. Bide batez, lerro hauek aprobetxatu nahi izan dituzte zaldibiarrei esker ona emateko.



Gazteluko aztarnategian aurkitutako animalia-hezurak, iltzeak, txanpon bat, hezurrezko dado bat eta zeramikazko pieza batzuk.



H8ko Mahai Nazionalari omenaldia

Uztailaren 20an, hemeretzi hilabete kartzelan igaro ostean, aske utzi zuten Herri Batasuneko Mahai Nazionala. Zaldibiako herriak omenaldi xume bat eskaini zien mahaikide

guztiei, eta batik bat Juan Mari Olano erdi zaldibiarrari. Goizean hasi eta iluntzerarte, bakoitzak zekiena eginez egin zioten gorazarre Juan Mariri: batzuek pilotan, besteak bertsotan; batzuek dantzan, besteak kantari; batzuek bazkaria prestatzen, besteak mahaia jarri eta dena antolatzen... Ongi etorri!

Segan Eslovenian

Abuztuaren 15ean Europako segalari txapelketa jokatu zen Eslovenian. Austria, Hego Tirol, Bavaria, Suitza, Eslovenia eta Euskal Herriko segalariak hartu zuten parte txapelketa horretan, tartean zaldibitarrak.

Guztira 60 gizonezko eta 30 emakumezko jardun ziren segan. Euskaldunen ordezkariak, Izaskun Larrarte ibartarrak irabazi zuen emakumeen txapelketa, Europako txapelduna da beraz.

Almitze Segalari Elkartek antolatu zuen bidaia hau, segan egiteaz gain, euskal kultura Europan zehar ezagutarazteko asmoz (dantzak, trikitixa...). Bidaia honen aurrekontuari aurre egiteko 20.000 ogerlekoko (duroko) bi sari zozketatu zituzten. Joan den astean eman zioten sarietako bat Edurne Makazaga segurarrari.

Zubi-buru Elkartea

Zubi-buru Elkartea garbitzaile bila dabil oraingoaren lekua betetzeko. Lanpostu honetan interesik duzuenok elkarteak batzordearengana jo dezakezue.

Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua


943 88 27 93

ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iurtxo, 5 943 16 22 56 ORDIZIA



943 88 96 67 ZALDIBIA

IDIAZABAL

Igande honetan, irailak 5, egingo da herriko talde batek Arantzazura joateko antolatzen duen erromesaldia. Goizeko 9etan abiatuko da Idiazabaldik autobusa. Gosaria egin ondoren goizeko 11etan aitortza izango da eta ondoren meza.

Bazkaria ospederian egingo da eta bazkalondorako bideo emanaldia dago antolatuta. Aurtengo erromesaldia otoitzaren inguruan antolatu dute, eta Idiazabalgoekin batera, Segura, Zerain, Mutilo eta Aguraingo herritarrek ere izango dira igandean Arantzazun.

Iaz 58 lagunek parte hartu zuten erromesaldian, antolatzailerak jakinarazi dutenez, "autobusez joaten direnaren gain norberaren kotxea hartuta joaten direnak ere izaten baitira". Aurten gainera inguruko herrietako jendea ere izango denez, giro berezia sortuko delakoan daude.

Udal batzordeak

Legealdi berrirako Udal batzordeen banaketa eginda dago. Hauek dira eratutako batzordeak eta haien buruak: Hirigintza eta Obrak, Julian Urteaga; Mendia eta baserria,

Arantzazura erromesaldia igandean



Inaugurazio jendetsua

Jende asko bildu zen uztailaren 23an Arizkorreta futbol zelai berriaren inaugurazio ekitaldian. Realeko eta Eibarko jokalariek zelaiaren erdian zirela bedekatu zuen Jesus Garmendia apaizak zelai berria, ondoren Jesus Serrano Idiazabal Kirol Elkarteko presidentek egin zuen ohorezko sarea. Ondorengo partiduan bina berdindu zuten Eibarrek eta Realak.

Partidua Euskal Telebistak eskaini zuen egun berean eta hurrengo eguneko prentsan oihartzun zabala izan zuen inaugurazio ekitaldiko partiduak, besteak beste ondoko esaldiak bildu zituzten egunkariak: "Arizkorreta erabat beteta" (Marca), "Idiazabaldarrek festa handia egin zuten Realaren bisita ospatzeko eta zelai berri eta polita inauguratzeko" (Mundo Deportivo), "Jende asko Arizkorreta zelaiaren inaugurazioan" (El Diario Vasco), "Idiazabaldarrek Euskal selekzioaren aldeko aldarrikapena egin zuten" (Gara).

Tomas Aldasoro; Kultura eta Euskara, Loinaz Urrestarazu; Gizarte Ongizate, Antton Irizar; Kirola, Aritz Imaz; Zerbitzuak, Antton Garmendia;

Gazta, Jesus Mari Insausti; Kontuetako batzorde berezia eta Ogasuna eta Pertsonala, Xabier Imaz.

Udalak partehartzea duen

bestelako erakundeetan ondoko ordezkariak izango dira: Gipuzkoako Ur kontsortzioan, Antton Garmendia; Sasietan Mankomunitatean, Antton Garmendia; Tolosako Hiltegian, Tomas Aldasoro; Goierriko Herrien Ekintza Fundazioan, Xabier Imaz; Gipuzkoako eta Arabako Partzonerian, Tomas Aldasoro; Goimen Elkartean, Tomas Aldasoro; Herri Eskolan, Loinaz Urrestarazu eta Guardi Gain SA-n, Antton Irizar.

Udaletxeko ordezkariak irailaren 7an, asteartea, egingo dute ikasturteko lehendabiziko udalbatza arratsaldeko 7,30etan.

Futbol 7 txapelketa

Idiazabalgo Kirol Elkartek Gure Sport taldearekin batera "Marca futbol 7" txapelketa antolatzeko asmoa du. Partiduak Arizkorreta zelai berrian jokatu dira eta 18 urtez gorako lagunez osatutako taldeek hartu dezakete parte. Izena emateko epea irailaren 7an, asteartea, bukatuko da. Informazioa lortu edo izena emateko deitu Gure Sporteko 943316758 telefonora.

Xabier Urteaga

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN ESKUZKO TRATAMENDUA

R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordue: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

AMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Sagardotegiko menua
- * Asteburuko menu bereziak
- * SAGARDOA TXOTXETIK
- * Karta zerbitzua
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

LAZKAO

Oporretatik itzuli zaigu GOIERRITARRA, eta noski, berarekin batera baita Lazkaoko kronikak ere. Oporretatik iritsi gara, baina, ez dute denek zorte bera izan, asko izan baitira abuztuan lanean aritu direnak, eta horren adibide bikainak ditugu herrian edonon ikusi ditzakegun obrak.

Abuztuan lan ugari izan da martxan herrian, batzuk jarraipen hutsa dira baina beste lan batzuk hasi berriak dira, halanola, Areso inguruko etxebizitza berriak.

Errekako lanak

Aurrera doazen beste lan batzuk errekaok ditugu. Zelata ondoko presaren gaineko lanak amaitutzat eman dira jadanik, eta orain, berako zatia falta da. Zati hone-tan, garbiketa lanak hasi di-ra, baina, ondorengo lane-tan arazo txiki batzuk sortu

dira. Errekaren aldeetan dauden lokal batzuk uholde arriskua omen dute, eta ha-sieran onartutako proiektuak arrisku hau areagotu egiten omen duenez, Ur Konfederazioak, atzera bota du proiektua.

Obraren egileek, beste al-ternatibaren batean pentsatu beharko dute.

Kiroldegiko sabaia konpondua

Abuztua aprobetxatu dute, baita ere, kiroldegiko sabaia konpontzeko. Hilabete es-kasean amaitu dituzte berri-tze lan hauek. Kiroldegia bi zatitan banatua izan da le-hen bezalaxe, zati batean teilak jarri dituzte, eta fron-toiaren gainkaldea, berriz, argia pasatzen uzten duen material batez estali dute, horrela eguneko argia apro-betxatu ahal izango da. Le-hen ere horrelaxe aurkitzen zen, baina, oso gaizki aurki-

Etxebizitza berriak

Bi lekutan hasi berriak dira etxe berriak eraikitzen. Gaine-ra aipatu beharra dago etxe hauek ingurune berdintsuan eraikiko dituztela eta beraz, Areso inguruan bizi diren laz-kaotarrek, denbora pixka batean behintzat, hotsak eta ho-rrelakoak jasan beharko dituzte.

Lehenengo eraikinak bariantearen kontra egingo dituzte, 'Enpaundi'ra bidean. Bertan etxebizitza bikoitzak egingo dituzte, Zubizkitza auzoan dauden oso antzekoak. Gaine-ra, aipatu beharra dago, bariantearen aldamenean, baina pixka bat beheraxeagotik, oinezkoentzat pasealeku bat egingo dela.

Beste etxebizitzak, anbulategiaren parean eraikitzen ari dira. 32 etxebizitza eraikiko dituzte, hiru pisutako bi bloke-tan banatuta. Tartearen, berriz, plaza koxkor bat eraikiko du-te. Bi obra hauek amaitzean, Areso auzoko urbanizazioa eginga egongo da.

tzen zenez, ittute pila bat zegoen, orain behintzat on-do babestua geratu da kirol-degia.

Kiroldegiarekin jarrai-tuz, bertako zerbitzuak en-presa pribatu baten esku geldituko dira aurrerantze-an. Bi proiektu aurkeztu di-

ra eta orain, bi enpresa hauen artean adjudikazioa egitea bakarrik falta da. He-mendik gutxi barru enpresa hauetako baten esku geldi-tuko dira, beraz, kiroldegian emango diren ikastaro eta abarrak.

Urko Irastortza

ZERAIN

Kultur astea izango da iraila-ren 11tik 19ra bitartean. Hainbat ekitaldi eta hitzaldi antolatu dira eta irailaren 19ko azoka biologikoarekin emango zaio amaiera.

Irailak 11, larunbata:

16:00etan: Marrazki lehia-keta.

18:00etan: Buruhandiak, sari banaketa eta merienda.

20:00etan: Herriko hurrek antzeztutako antzerkia.

21:00etan: Afaria. Afalon-doren trikitilariak.

Irailak 12, igandea:

12:00etan: Meza nagusia Agirre eta Etxeberria ber-

tsolariek lagunduta.

Ondoren, bertsolari eta tri-kitilarien saioa plazan.

14:00etan: Bazkaria.

Irailak 13, astelehena:

Hitzaldia: Gaia: Permakul-tura. Hizlaria: Josu Jauregi.

Irailak 14, asteartea:

Hitzaldia: Gaia: Elikadura eta medikuntza. Hizlaria: Julian Bereziartua.

Irailak 15, asteazkena:

Hitzaldia: Gaia: Larramen-diren garaiko eztabaidak. Hizlaria: Mikel Zalbide.

Aste kulturala eta azoka biologikoa

Irailak 16, osteguna:

Hitzaldia: Gaia: Zer egin dezagu egunero ingurugiro-aren alde. Hizlaria: Gerarta Iñaki Arozena.

Irailak 17, ostirala:

Diapositiba emanaldia: Gaia: Alegiazko herrialde bat. Emailea: Felipe Uriar-te.

Hitzaldiak iluntzeko 8,30etan, Kultur Etxean izango dira.

Pintura erakusketa

Astean zehar pintura era-kusketa izango da. Bertan ikusi ahal izango dira Joxe-mari Telleriaren lanak. Or-

Auto zaharren erakusketa

Abuztuaren 14an Gipuzko-ako 1950. urtearen aurretiko autoen erakusketa izan genuen Zerainen. Bertan 15 auto bitxi bildu ziren.

dutegia: 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:30era.

V. Gipuzkoako nekazaritza biologikoaren azoka

Irailaren 19an, igandean, ospatuko da V. Gipuzkoako nekazaritza biologikoaren azoka. Egitaraua hurrengo alean izango duzue.

ATAUN

Aurten ere programa bete be-
tearekin datozkigu San Gre-
gorioko festak. Oporren
amaierak sorrarazten dizki-
gun "ajeak" ahazteko era
egokia izan liteke, dudarik
gabe, asteburu honetan San
Gregoriora inguratzea. Hona
hemen xehetasunak.

Irailak 3, ostirala:

San Gregorio eguna:

11:30ean: Meza nagusia

12:30ean: Toka txapelketa

13:30ean: Bertsolarien le-
hen saioa.

14:00etan: Herri bazkaria
trikitilari eta bertsolariekin.

18:00etan: Pelota partiduak:
Gazteak: Ergedas-Arratibel
Arizmendi-Albisu; larriak:
Dorronsoro-Barandiaran Al-
dasoro-Imaz.

22:00etan: Kontzertua. Ge-
roh eta Lif.

24:00etan: Etzakit taldea
goizalderarte.

Goizaldean batzuri zopa
ederra dastatzeko aukera.

Mozorro gaua.

Iganderarte San Gregorioko festak



Irailak 4, larunbata:

Koadrila, preso, errefuxiatu eta

deportatuen eguna:

12:00etan: Koadrilen topa-
keta txarangaz alaiturik.

Ondoren poteoa preso, erre-
fuxiatu eta deportatuen ome-
nez.

14:00etan: Koadrila bazka-
ria.

16:00etan: Afizionatuen txi-
rrindu proba.

18:00etan: Erreka jaitsiera
eta jolasak (preso, errefuxia-
tu eta deportatuen alde).

19:30ean: Txirrindu proba-
ren amaiera.

24:00etan: Alaitz eta Maider
goizalderarte.

01:00ean: Preso, errefuxiatu
eta deportatuei eskeinitako
ekitaldia. Goizaldera txoko-
latada.

Irailak 5, igandea:

Erretira eguna:

10:30ean: Meza nagusia eta
ondoren salda.

11:15ean: Herriko dantza-
riak.

12:00etan: Pelota partiduak:
Gazteak: Aierbe-Erauskin

Gonzalez-Goikoetxea; La-
rriak: Zubizarreta-Txikito
Etxaniz-Garate.

14:00etan: Asto karrera.

18:00etan: Herri kirolak:
Olaberria-Beasain.

Ondoren herriko gazta dasta-
keta.

20:00etan: Joxemi Martis
eta Aloñaren kantaldia.

Gauean Dani eta Anartz tri-
kitilariak goizalderarte.

Labur-labur

● Sastegiko Sor Josefa
Erauskin lekaimeak joan den
igandean, abuztuak 29, ospa-
tu zituen bere Urrezko Ez-
teiak. Urteaskotarako.

● Joxemiel Barandiaran es-
kolako haurrek irailaren
8an, asteazkena, emango
diote hasiera ikasturte berria-
ri.

● San Gregorioko Sutegi ta-
berna alokatzen da. Bezero
ziurtatua. 943180354 (Pepi).

Aqurtzane Bikuña

MUTILOA

Abuztuko oporralditik buel-
tan izaten ditugu auzo polit
honetako festak. Aurtengoan
honako egitarau honekin:

Irailak 5, igandea:

9:00etan Gazte mailako
XVII. txirrin্দulari proba,
Lierniko Txirrin্দulari Elkar-
teak antolatuta.

Egun osoan zehar: Edurne
Iturbe eta Oihana Iraztorza
trikitilariak alaituko dituzte
bazterrak.

Irailak 8, asteazkena, Lierniko Amaren eguna:

11:30etan: Meza Nagusia

Egun guztian zehar: Elor-
tza anaiek alaituko dute au-
zoa.

Irailak 11, larunbata:

Iluntzean: Auzo afaria, Pa-
txi Erretegian.

Ondoren: Andonegi eta Os-
tolaza trikitilariak gau giroa
alaitzeko.

Irailak 12, igandea:

9:00etan: Goiz Eresia Segu-
rako txistularien eskutik.

10:00etan: XVIII. Pitxoi Ti-
raketa, Kolonbaire tresnaz.
Urtero bezala sari ugari eta
ikusgarriak izango dira. An-
tolatzaile: Aitz-Buru Elkar-
tea.

12:30ean: Meza Nagusia

13:00etan: Toka lehiaketa,
federatu gabekoentzat.

13:30ean: Zeberio eta Go-

Lierniko festak

Arantzazuko erromesaldia

Urteroko ohiturari eutsiz, irailaren 4an eta 5ean izango da
Arantzazurako erromesaldia. Bueltan igandean eguna behar
bezala bukatzeko, Ostatuan bokadutxo bat egiteko aukera
izango da.

Jubilatuen bidaia

Irailaren 16rako herriko jubilatuek Bizkaiko kosta aldera
egun pasa antolatu dute. Bidaia honetan parte hartzeko auke-
ra herritar guztiei zabaltzen zaie. Beraz badakizue, animatu.
Izena emateko udaletxera joan besterik ez daukazue.

rrotxategi bertsolarien lehen
saioa.

**Ondoren eta egun guztian
zehar:** Olatz Nograro eta
Ainhua Munduate trikitila-
riek alaituko dute festa.

18:00etan: Elorriaga eta
Azurmendi aizkolarien
saioa.

Ondoren: Zeberio eta Go-
rrotxategi bertsolarien biga-
rren saioa.

Oharra: Afarirako izen
ematea Patxi Erretegian. Te-
lefono zenbakia: 943-
801575.

Iñaki Unanue

GABIRIA

Santiago egunean inauguratu zen Alkaingo eliza eraberritua



Setien gotzaia, apaizak eta alkatea elizaren inaugurazio egunean



Datorren igandean bost herritarrek lehenengo jaunartzea egingo dute

Elizako lanak direla eta, lehenengo jaunartzea irailaren 5era arte atzeratzea erabaki zen eta ondorioz, igande honetan ospatuko dute egun haundi hori Roberto Aranburu, Arantzazu Baztarrika, Andoni Larrañaga, Iñigo Murua eta Maddi Murua haurrek. Egun ederra igaro dezatela senitartekoeekin batera.

Argazkian, lehenengo jaunartzea egingo duten haurrak.

Gabiriako elizaren egoerak makina bat buruhauste eta kezka sortzen zien eliztarrei nahiz gabiriarrei eta burutu beharreko lanak hain handiak izanik, hasiera batean Eliz Batzordekoek teilatu nagusia konpontzeko asmoari behintzat heldzea erabaki zuten herritarrekin nahiz hainbat erakunderekin zenbait bilerak izan ondoren. Horrela, urri aldera ekin zioten teilatu nagusia konpontzeari.

Teilatu nagusia konpontzea gutxi gora-behera hogeita hamar milioi kostatzen zen eta horri aurre egiteko herritarrei dirua eskatzea erabaki zen. Herritarrek eskaera horren aurrean eman zuten erantzuna ezin hobeia izan zen eta ondorioz Diputazio-ko eta Gotzaitegiko zenbait arduradun harriturik geratu ziren herritarren erantzunaren berri izan zutenean. Hori dela eta, hasiera batean agin-

gutako diru kopurua baino gehiago ematea erabaki zuten, eta ondorioz teilatu nagusiaz gain beste lan hauek guztiak egin ahal izan dira: eliz ataria erabat konpondu; paretak, elizako gangak eta behe aldeko paretak luzitu eta pintatu; fatxadako harriak garbitu; elizako saloia erabat eraberritu sabaia eta leihoak berrituz; parroki bulego berria; berogailua; leiho eta beirate berriak; Elizako erlojua konpondu; erretabloak eta aldareak garbitu eta konpondu; aldare, zoru eta teilatuko egur guztiak tratatu; eliz atariko zorua konpondu; megafonia, tximist-orratza eta aldareko mahai berria.

Lan hauek guztiak jadanik eginda daude eta kostua gutxi gora-behera lauogeita hamar milioikoa izan da. Horietatik Gotzaitegiak sei milioi agindu ditu, hiru urtetan emango dituenak, eta apaiz

etxea eliz batzordeari eman zion sal zezan, baldintza bakarra izanik, hain zuzen ere, apaizak etxe horretan gela bat izatea elizako kontueta-ko bulego bat jartzeko. Etxe hori hamalau milioi eta seiehun mila pezetetan saldu da.

Diputazioak hogeita hamasei milioi eman ditu eta gainerantzekoa Kutxak, Gabiriako Udalak eta herritarrek jarri dute.

Herritarrek jarri duten diruaz gain, benetan aipatzekoa da zenbait herritarrek auzo lanean egin duten lana. Asko eta asko bere etxeko

zereginak utziz hortxe aritu baitira buru-belarri lanean iraun duten bitartean. Horretaz gain, zalantzarik ez dago, eta esan beharra dago eliz batzordea osatzen duten ki-deen lana ikaragarria izan dela elizako lanak nahiz diru kontuak ondo eta egoki bide-ratu ahal izateko.

Lanak bukatu dira, eta eliza hortxe dago herri txiki batek egin duen ahaleginaren emaitza eta eredu, nahi due-nak ikus eta senti dezan herri xume honen handitasuna.

Gabino Murua

GUREA
JANARIAK

GAZTAK
BABARRUNAK
ARRRAUTZAK

☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Añber etxea
MUTILOA

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterolak, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA

GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
☎ 943 88 87 62 **BEASAIN**

BEASAIN

Igartza auzoko eta Beasainmendiko jaiak

Irailaren 3tik 5era bitartean ospatuko dira Igartza-Loi-natz auzoko jaiak, nahiz eta erromeria irailaren 8an ospatu, Loinazko Ama Birjinaren ermitan.

Irailak 3, ostirala:

19:00etan: Txupinazoa. Buruhandien eta txistularien irteera. **19:30etan:** Poteo trikitilaria. **23:30etan:** Dantzaldia Drindots taldearekin.

Irailak 4, larunbata:

10:30etan: Igeriketa froga. **11:30etan:** Marrazki lehiaketa. Egunean zehar haur jokoa. **16:00etan:** Arku tiraketa froga nazionala futbol zelaian. **16:00etan:** Mus txapelketa. **17:00etan:** Toka eta igel txapelketa jubilatuentzat. Ondoren luntxa. **19:30etan:** Poteo trikitilaria. **00:00etan:** Mozorro gaua. Dantzaldia 'Arkaitz' taldearekin.

Emakumezko pelotariei omenaldia

Iazko Mexikoko Munduko txapelketan palan gomazko pilotaz jokaturako txapelketan, Maite Ruiz Mujika (Beasain jaio eta Eulaten bizi), Susana Muneta (Legartza), Maider Mendizabal (Anoeta) eta Eli Lasak (Aia) irabazi zuten eta Igartza auzoko jaien barruan omenaldia eskainiko zaie, irailaren 4an, 18:00etan. 3 pelota partida izango jokaturako dira. 4 neskek beraien artean jokaturako dute 3. partida. Ondoren afaria egingo da Kattalin erretegian.

Irailak 5, igandea:

11:00etan: Motokros txapelketa Indarreko zelaian. **12:30etan:** Buruhandiak eta Koskola txaranga. **13:00etan:** Poteo herrikoia

txarangarekin. **14:30etan:** Bazkari herrikoia. **18:00etan:** Euskal dantzak. **19:00etan:** Herri-kirolak. **20:30etan:** Poteoa txaranga-ekin. **22:00etan:** 'Pobre de mi'. Jaien amaiera.

Beasainmendiko jaiak

Igandean, irailaren 5ean, ospatuko dira Beasainmendiko jaiak. Goizeko 11etako herri mezaren ondoren, 11:30etan Aizkorri Mendizale Elkartekoei ongi-etorria emango zaie eta eguerdiko 12:30etan Laja eta Landakanda trikitilariak izango dira. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolarien txanda izango da ondoren. 13:00etan omenaldia egingo zaio agure zaharrenari; Jokinen oroimenean ere beste omenaldi bat egingo da. Herri-kirolen ordua izango da 13:30ak aldean: aizkoran Arrospide eta Azurmendi arituko dira eta tron-

tzan Olasagasti eta Aierbe. Ohiko bazkari herrikoia ondoren, 17:00etan hurrentzako jolasak izango dira. Laja eta Landakanda trikitilariak emango die festari amaiera.

Erretiratuei omenaldi-bazkaria

Irailaren 19an ospatuko da erretiratuena eguna. Herriko erretiratuak omenduko dira. Eguerdiko 13:30etan, Antzizar kiroldegian, bazkaria izango da. Bertara joan nahi dutenek, irailaren 15a baino lehen eman beharko dute izena, Udaletxeko Harrera bulegoan, goizeko 9etatik 1era bitartean. Nortasun Agiria aurkeztu beharko da izena ematerakoan. 400 pezeta ordaindu beharko da. Beasainen bizi diren 65 urtez goitiko pertsonak eta beren ezkontideak eman dezakete izena.

KALITATEKO
EUSKAL OKELA
Harategia - Urdaitegia
Festa onak pasa!
Saltsamendi
☎ 943 888 646
Igartza Oleta, 1 BEASAIN

ARKATZA
→ Eskola materiala
→ Fotokopiak
→ Bideo Kluba
→ Kiniela seilaketa
Igartza Oleta, 12 ☎ 943 88 22 09
BEASAIN

JULIAN MUJIKAZ
Harategi - Urdaitegia
Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 10
☎ 943 88 01 96
BEASAIN

IBAI-ONDO
Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea
ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



ZUHAIZPE TABERNA
Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!
Igartza Oleta, 14
BEASAIN

AKELARRE
taberna
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 12 ☎ 943 88 23 12
BEASAIN

ANZIZAR
Taberna
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17
BEASAIN


**Luma Gorri Baserriko Oilaskoa.
Goxoa, ezberdina eta naturala.**



Belardian
aske
hazitakoa

Luma Gorri

Tfnoa: 943 80 01 61 • Zerain (Gipuzkoa)



EUSKO LABEL



KALITATEA

Eraman ezazu etiketa eta garantiaren eraztun zenbakituarekin batera.

SEGURA

XVII. Usakume tiraketa

Txoritegi elkarteak antolatuta, irailaren 5ean, goizez (10:00-13:30) eta arratsaldez (15:30-19:00) Aizkoeta Erdi baserriko zelaian. Izen ematea (3.000 pezeta, usakumeak sartu gabe), bertan. Saritan 200.000 pezeta eta opari ugari. Taberna jarriko da.

Ehiz postuen subasta

Irailaren 12an, 10:30ean izango da partzoneriko ehiz postuen subasta udaletxean. Proposamenak irailaren 11rako bidali behar dira eguerdiko 12ak aurretik.

Subastan sartu ez ziren postuak abuztuaren 27an zozketatu ziren partzoneriko herrien artean. Segurarei, Apota 8 eta 10, Larrebil 5, 11 eta 13, Iturgain 7 eta 9, Lixibaleku 1, Aratz 1 eta 9, Portugaña 4 eta Leotaran 2 tokatu zitzaizkien. Hauek, herriko ehiztarien artean banatuko dira.

Labur-labur

● Pasa den astean itxi zen udan zehar Zurbano etxean egon den Turismo bulegoa. Bertatik herrialde ezberdinetako 400en bat lagun pasa dira.

● **Platinozko ezteiak:** Abuztuaren 29an Agerreberriko Bittoriano Gerrikok eta Trinidad Erauskinen ezkondu zireneko 60. urteurrena ospatu zuten Arantzazun euren familiakoekin.

● **100 urte:** Irailaren 2an, San Joan Egoitzan bizi den Maria Antolina Ugalde Gabilondo zeraindarrak, 100 urte bete zituen. Egoitzakoek ekitaldiz betetako eguna eskaini zioten.

● Irailaren 5eko Legazpiko Artzai Egunean, beste 4 artzainekin batera, 80 urte dituen Madalenako Anttoni

11 herritar Preferenteko taldean

Inoiz izan den kategoriarik handienean ekingo dio futboleko talde nagusiak denboraldi berriari irailaren 5ean, Mutrikun. 2.Bko Beasain kenduta, eskualdean mailarik altuenean arituko den taldea da. Preferentean parte hartuko duten herrietan txikiena da eta aurrekonturik bajuenetakoa duena.

Bazkide bila kalera

Errealak, udalak, festetako tabernak eta futbol zelaioak ematen dituzten diru laguntzez gain, bazkideena dago. Iazkoei jarraipena eman eta berriak egiteko, asteburu honetan eta hurrengoan plazan mahaiak jarriko dituzte nahi duten herritar guztiek zertxobait aporta dezaten. Bazkide txartelak aurreko denboraldiko prezio bera dute eta horren truke Segura F.T.ren 4 kategorietako etxeko partidua ikusteko aukera izango da.



Preferentean arituko diren jokalaririk herrietarrik. Xanet Garmendia eta Xabier Gereñu falta dira.

Bloke beretsua

Kirol arloari dagokionez, Iñaki Albisuk jarraituko du talde nagusiaren entrenatzailer modura. Bloke indartsua badu ere, talde giroa da arrakastaren oinarriarik sendoenetakoa. 23 laguneko plantila du Iñakik horietatik 11 herritarrik: Xabier Alustiza (aurten hasia), Jon Ander Hombre, Eñaut Telleria, Jon Insausti, Imanol Intxausti, Ai-

tor Leturia, Joxe Mari Izagurre, Iker Garmendia, Xanet Garmendia, Jokin Etxeberria eta Xabier Gereñu.

Gainerakoak aurki

Jubenilek irailaren 12an hasiko dute denboraldia. Kade-teek 26an eta infantilek urriaren 3an. Talde hauetan aritzeko interesaturik dagoena ager dadila entrenamenduetara.

Oiarbide Omarzabal artzai-andra herritarra omenduko dute.

● Irailaren 8an emango die hasiera Laiotz Herri Eskolan 99-00 ikasturteari, goizez bakarrik.

● Irailaren 11n Auzo afaria izango dute Arantzazu bariokoek.

● Jubilatuen txangoa. Irailaren 14an Bizkaia aldera. Izen ematea gaur (18:00-19:00) eta bihar (19:00-20:00). Prezioa: 3.000 pta.


● Irailaren 19an jubilatuen eguna ospatuko da.

● Banakako herrien proiektua (Euskal Herriko eta Akitaniako 25 herriz osatutako gida). Hori dela eta irailaren 18 eta 19rako zenbait aktibitate antolatuko dira Seguran, Zegaman eta Zerainen.

● Erakusketa. Jesus Jauregi pintore eta eskultoreak Ordiziako Barrena Jauregian irai-

lean zehar.

Joseba Telleria



Erromesaldia Arantzazura

Bihar, irailak 4, goizeko 8etan aterako dira herritarrik mutiloak eta zeraindarrekin batera autobusez Otzaurteraino. Handik Arantzazuraino ia egun osoko ibilbidea izango dute. Egundean autobusez itzultzeko aukera izango da Arantzazutik. Irailaren 5ean goizeko 9etan aterako da autobusa aurreko egunean joandakoekin batera meza entzun eta Ospederian bazkaltzeko. Arratsaldean, herriko txistulari eta agintariek harrera egingo diete Jermanenen. Autobusetarako izen ematea irailaren 3rako egin behar da Jermanenen.

ZEGAMA

Santiago Bideari buruzko jardunaldiak



San Bartolometan giro ederra

Joan den astean bukatu ziren San Bartolome jaiak eta esan eguraldiak laguntzeaz gain, jendeak festa giro ederra aurkitu zuela.

● Urtero bezala koadrilen egunean giro polita sortu zen moztortuekin. Taldekako saria MKI Irratiak eraman zuen. Jantzi landuena, berriz, estraterresteen taldeak jaso zuen eta barkarkako saria, Indioak.

● 29. Apeaderora Igoera, Iker Elorzak irabazi zuen. Bigarre-na Ruben Zabaleta izan zen eta hirugarren Mikel Mendia. Haurren txirrindu lasterketako emaitzak:

7 urtetik beherakoetan: 1. Unai Atxa; 2. Arkaitz Urbiztondo; 3. Idoia Berasategi.

7, 8, 9 urtekoetan: 1. Joseba Arakama; 2. Iker Irastorza; 3. Iñaki Castro.

10-11 urtekoetan: 1. Aitor Zabaleta; 2. Iñaki Gorrotxategi eta 3. Borja Urzelai.

12-13 urtekoetan: 1. Oier Arkonada; 2. Iban Sanjuan; 3. Mikel Larrea.

● Probintziako bola txapelketa: abuztuaren 28an jokatu zen Txarapeko bolatokian eta Zeraingo Antonio Alustizak irabazi zuen txapelketa.

● Plater tiraketan irabazlea Mikel Urbiztondo izan zen.

● Toka txapelketa Ugartek irabazi zuen eta herriko lehenengo saria Joseba Albizuk jaso zuen.

● LXVI. San Bartolome txirrindu froga: Lasterketa Imanol Aiestaranek (Kaiku) irabazi zuen; bigarren Iban Gutierrezek (Iberdrola) egin zuen eta hirugarren, Igor Astarloak. Azken honek, datorren urtean Pantanirekin korrituko du.

Datorren hilaren 18an hasita, Santiago Bideari buruzko ikastaroa egingo da herrian. Gaia: Santiago Bidea Euskadin eta Goierrin izango da. Ikastaroak ostiral arratsalde eta larunbat goizetan emango dira. Ikastaro hauen antolaketa Goiekiren bidez eta Zegamako Udalak Adapt programaren barnean eta Europako Fondo Sozialak lagundurik gauzatu da.

Zegamatik Santiago Bidea pasatzen denez, interesgarritzat jo da bertan Santiago Bideko gidak prestatzea bertara letozkeen turistei azalpen egoki bat emateko asmoz eta aldi berean turismoa bultzatzeko asmoz.

Santiago Bideari buruz, (eremu zabalean zein bailara mailan) jakin beharrekoaren formazioa ematea, bideari lotutako alor guztiak ukituz eta bidearen inguruan sortu daitezkeen lanpostu posibleak kontuan hartuz.

Irailaren 18, 24, 25 eta urriaren 1 eta 2an emango da ikastaroa. Bertan landuko diren gaiak: Santiago Bidea Euskal Herrian bideo emandua; Santiago Bide akti-

boa (Santiago Bidea Goierrin eta kirola egiteko aukerak: B.T.T. ibilbidea, zaldi ibilbideak...); Santiago Bidea Gipuzkoa eta Goierrin: historia, geografia, artea, paisaia, Euskal Herrian izan duen eragina, Santiago Bidearen ibilbide prestaketa; Santiago Bidea Goierrin (ibilbidea egitea).

Ikastaroa emango duten adituak: Fernando Imaz (Gipuzkoako Santiago Bidearen lagunen Elkarteko Lehendakaria); Maria Angeles Gurrutxaga (Deustuko Unibertsitateko Turismo Eskolako irakaslea); eta Nikolas Osinalde (Goiekiko Teknikaria).

Matrikula udaletxean egin behar da, irailaren 15a baino lehen. Prezioa: Zegamakoe 3.000 pezeta eta kanpokoe 5.000 pezeta.

Oharra

Udalak jakinarazi duenez, hastear dagoen ikasturtean, Tobera Musika Eskolako ikastorduak, txistua izan ezik, Kultur Etxean eta Aitxuri Herri-eskolan emango dira.

Eduarne Albizu

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN

AINHOA GARMENDIA, LEGORRETAKO SOPRANO GAZTEA:

"Barrutik ateratzen zait kantatzea, gozatu egiten dut"

Ainhoa Garmendia sopranoak duela 10 bat urte heldu zion buru-belarri kantuari. Harrezkeroztik, han eta hemen, ikasketa ezberdinak egiten ari da. Bere buruarengan konfidantza hartu duela eta, uda honetan, bere burua promozionatzen ari da eta zortea bere alde du, emanaldi ugari ari baita ematen bai Euskal Herrian eta bai Alemanian. 25 urte beteko ditu urrian.

Jaiotzez Legorretakoa da Ainhoa, gurasoak Ordizian bizi ditu, eta Ainhoa Basauri eta Viena bitartean bizi da. Ia 10 urte daramazki kantu munduan sartuta. "Ordizian hasi nintzen, Oroith abesbatzan. 16 urterekin hasi nintzen Amalia Ibañezekin kantuko klaseak hartzen, musika eskolan. Bi urteren ondoren, Donostiako orfeoiria joan nintzen, klaseak hartzera. Hiru urtean oinarria hartu



Uda honetan lan eta lan ari da legorretarra.

nuen. Madrila joan nintzen ondoren, Kantuaren Goi Eskolara eta bi urte egin nituen. Santiago de Compostelako ikastaro bat egin eta gaur egungo irakaslea ezagutu nuen: Elena Cascara. Vianan ematen ditu klaseak eta bertara joan nintzen. Bi urte egin ditut han". Vianara joateko Madrilgo Erkidegoko abesbatzan zuen lanpostua utzi egin behar izan zuen, "batetik denbora asko kentzen zidalako eta bestetik, ahotsarentzat kalterako zelako, erabat ezberdin kantatzen baita abesbatzan".

Eszenatokian jartzeko garaia

Ikasten inoiz bukatzen ez bada ere, lanean hasiteko edo ikasitakoa praktikan jartzeko garaia heldu zaiola uste du Ainhoak. "Orain arte ikasle-ikasle bezala egon naiz, noizbehinka lantxo batzuk eginez. Orain berriaz, audizionatzen, ezagutzera ematen ari naiz, praktikatan arituko banintz bezala".

Uda honetan lan eta lan ari da. Bere karrera guztian bezalaxe, orain ere zorte handia edukitzen ari dela dio legorretarrak. Uztailan Berlinean izan zen, Branderbugoko Sinfonikoarekin. Donostian Straussen 'El Muercielago' operetan parte hartu du. Donostiako Musika Hama-bostaldian, XX. Mendeko Musika zikloaren barruan Kanta Kantemus abesbatzarekin eta Josu Okiñena pianistarekin hainbat obra abestu ditu. Euskaldunako jauregian ere kantatu zuen. Urrian ere errezital garrantzitsua izango du Bilboko Filarmonekin, Turinaren 'Las musas del Andalus' obran

parte hartuko baitu. "Zorte handia edukitzen ari naiz, jendea aukera asko ari zait ematen. Eskola beharrezkoa da, baina eskola batean bakarrik ezin da formatu. Esaten denez, gela baten barruan denok gara Monserrat Caballer eta Pavarotti, baina gero eszenatokian ikusi behar da zure ahotsa noraino iristen den. Ikasteko modu bakarra eszenatoki gainean jartzea da", dio Ainhoak. "Musikarako asko ikasi behar da, formatu egin behar da, baina barruan ere eduki behar da zerbait", gaineratu du.

Era guztietako musika gustatzen zaio goierritarri. Zarzuela, opera, musika sinfonikoa, musika modernoa... Musika modernoarekin ari da orain eta bere ahotsa ondo egokitzen omen da. Baina musika italianoa gustatzen zaio gehien.

Gustora sentitu da eszenatoki gainean. Kantatzen gozatu egiten du Ainhoak eta antzeztea ere beti gustatu izan zaio. Kantatzeko eta antzezteko gaitasuna, berezkoa omen du. "Barrutik ateratzen zait, gozatu egiten dut".

ORDIZIAN eta BEASAINEN



- Etxebizitzak
- Apartamentuak
- Lokal komertzialak
- Garajeak
- Kalitaterik oneneko eraikuntzak

s.a.

Filipineta, 13 - behea 943 88 49 50 ORDIZIA

OSKARBI OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers



K. Nagusia, 25

88 19 44

ORDIZIA

Sopranoak adierazi digunez, interpretatzeko naturaltasuna ez du aurkitu ez Vienan eta ez Alemanian. "Pausoz-pausoz dena nola egin behar duten esan behar zaie. Asko kostatzen zaie inprobisatzea. Hotzagoak dira. Alemania aldean gure izaera oso ondo hartzen da".

Kanpora, ez derrigorrez

Ainhoa atzerrira joan da ikastera, bere gustoko irakaslea atzerrian aurkitu duelako. Baina, bere ustez derrigorrez ez dago kanpora joan beharrik kantua lantzerako. "Kanpoan gauza onak eta txarrak daude, eta erabakia hartu aurretik, tanteatu beharra dago. Ikastaroak egin eta norberari ondo datorkion irakaslea aurkitu behar da. Kanpoko irakaslea delako bakarrik, ez da derrigorrez ona izango. Ni Vienara, irakasleagatik joan nintzen". Vienara joateko Gipuzkoako Diputazioak bi urteko beka eman zion.

Kanpora joateak, ordea, ba omen du abantailarik. "Kultura aldetik, Viena oso indartsu dago. Beste hizkuntza bat ikasten da, beste kultura bat... Vienara joan aurretik alemaniako musika ez



Txiki-txikitatik dauka Ainhoa Garmendiak kantatzeko zaletasuna; antzeztekoa ere bai. Akordeoia ikasten hasi zen eta tartean kantua gurutzatu zitzaion. "Kantua deskubrimetua izan zen niretzat. Sekula ez dut sufritu kantatzen".

nuen ulertzen eta ez zitzaidan gustatzen. Baina hizkuntzarik ez nekielako ez zitzaizkidan iristen. Alemaniako musika ulertzeko balio izan dit".

Vienan bizi izan da Ainhoa bi urtez eta aitortu digunez, oso gogorra da Vienan bizitzea. "Neguan ez da eguzkirik ikusten, oso azkar iluntzen du, jendea oso triste egoten da, depresio handiak harrapatzen ditu jendeak, jendea oso hotza da... Apiriletik aurrera, beste hiri bat ematen du Vienan".

Euskara eta gaztelera gain, alemana, italianoa eta

frantsesa dominatzen ditu sopranoak. Kantu munduan hizkuntza estandarra italiarra baldin bada ere, alemana geroz eta hizkuntza garrantzitsuagoa ari da bihurtzen. "Mugimendu handia dago Alemanian. Edozein herri txikitik antzokiak daude eta musika emanaldiak egoten dira. Diru asko dago Alemanian. Kantari asko ateratzen da Alemaniatik".

Lanbide gogorra

Ahotsa zaindu, memorizatu, hitzak ikasi, hizkuntzak ikasi, itxura zaindu, pianoa ikastea... lan asko izaten ditu soprano batek. Mundu gogorra

da kantariarena Ainhoaren esanetan. Abeslariaren itxura gero eta gehiago hartzen da kontuan paperak banatzerakoan. Operetako paperak banatzerakoan, askotan nola kantatzen den baino gehiago begiratzen omen zaio itxurari. Kontzertuetan hainbeste ez bada ere, Ainhoak adierazi digunez, itxura ona edukitzea garrantzitsua da.

Soprano ugari dago eta konpetentzia ere bai. Hala ere legorretarrak esan digunez, beste instrumentu askotan baino lan gehiago da kantuan. Baina "ez dut uste Euskal Herrian bakarrik geldituta bizimodua atera daitekeenik. Nire bizilekua hemen egotea nahiko nuke, eta gero hemendik mugitu".

Aurrera begira, audizioak egiten jarraituko du, antzoki ezberdinetan bere produktua erakusten.

Ainhoaren ametsa, Verdi-ren La Traviata opera kantatzea da. "Ahots indartsua behar da horretarako, nik altua daukat baina nire ahotsa aldatzen ari da, egiten ari da, noizbait Traviata abestea gustatuko litzaidake".



Izen emate epea zabalik

1999-2000 KURTSO
HASERA
IRAILAK 13

**MATRIKULA
DOHAINIK**

The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5 ☎ 943 16 20 16 ORDIZIA

ZORIONAK!!

Cambridge First Certificate Notak:

Ane Garin Aranburu:A
Alaitz Insausti Oiarzabal:B
Maria Jesus Garin Antia:B
Aitziber Esnaola Irazusta:C
Irati Susperregi Enparanza:C.

Cambridge Advanced

Monica Gonzalez Crespo:C



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

☎ 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak

Giro abertzalea

Elkano Kalea

ORDIZIA



1970eko beasaindarrak

Alkartasuna Lizeoko ikasleak dira argazkikoak. 1977. urtean Goñiko urtegira egindako txangoan ateratakoa da.

Andereñoa: Mila.

Goiko ilaran: Josu Sarriegi, Itziar Etxeberria, Elixabet Ibarguren, Gorka, Beatriz Moyua, Nekane Oiarbide, Loinaz Jauregi, Josune Alkaiaga, Itsaso Imaz eta M. Jesus Gorospe.

2. ilaran: Joxe Mari, Teresita Ortega, Inmakulada Imaz, Arantxa Berruezo, Ibone Etxezarreta, Tomas, Juan Diez, Ibon Laborde, Jose Migel Arteaga, Juan Karlos Lopez de Munain, Felix Diez, Miren Guridi eta Mikel Arabaolaza.

3. ilaran: Nekane Auzmendi, Agurtzane Arakama, Izaskun Arizkorreta, Idurre Eskisabel eta Urko Kano.

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:


Lanegunetan:

© 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 © 943 88 35 81
BEASAIN



Barandiaran ZERAMIKAK




- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO



ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

farma


Angela San Juan Gonzalez
Farmazian lizentziatua



Urdaneta, 54 behea
☎/Faxa: 943 16 18 79
ORDIZIA

etxe

Orain ortopedia erakusketa berria



Parafarmazia



OINAREN KABINETEA

Anatomiko eta atsedendaldiko oinetakoak.
Zuzenketarako haurren oinetakoak.
Plantilak, silikonak eta osagarriak.

LAGUNTZA TEKNIKOAK

Gurpildun aulkiak. Oinez ibiltzekoak eta bastoiak.
Minusbalio arazoak dituzten eta ohean dauden
pertsontzat laguntzak.

BASKULARRA

Konpresio galtzerdiak eta produktuak.
Arazo baskularren prebentzioa eta
tratamentua.

KIROL ORTOPEDIA

Kirolerako ortesia.
Kirol-bendak.

UDAL EUSKALTEGIAK

ZURE ETORKIZUNA EUSKARAZ



1999-2000 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

Maila guztiak: Euskalduntzea, Alfabetatzea EGA
eta 4. maila (euskara teknikoa)

Ordutegi zabala

Beka sistema

Ikasketa bereziak eskariei egokituak

16 urtez gorakoentzat

Informazio gehiago Udal Euskaltegian

Bulego ordutegia:

Goizez: 09:00-13:00

Arratsaldez: 15:00-19:00

Matrikulaldia

Irailaren 2tik 17ra



BEASAINGO

UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a

☎ 943 80 52 54

BEASAIN

MUTILOKO OSTATUA

LEHIAKETA BIDEZ HARTZEKO DEIA



**Izen emateko epea:
irailaren 7a**

**Informazioa eta xehetasunak:
Mutiloko Udaletxean
10:00etatik 14:00etara
edo
943 800 450 telefonoan.**



MUTILOKO UDALA